



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEAErakunde autonomaduna
Organismo Autónomo delEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**ELKARRIZKETA**

Juan Luis Ibarra,
EAEko Auzitegi Nagusiaren
presidente ohia:

«*Estatu mailako sistema da gure justizia administrazioa, baina, aldi berean, europar sistemaren parte gara*»

**INFORMAZIO ETA
KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK**

Bilatzaileak, hamaika
zerbitzu eskainiz

GORKA JAKOBE PALAZIO

GIZA BALIABIDEAK

Adimen artifiziala
desmitifikatzen (I)

JAVIER MARTINEZ ALDANONDO

ERREPORTAJEA

**Cohousing,
bizikidetzari
esanahi bete
eman nahi dion
etxebizitza-eredua**

EZTABAIDA

**COVIDaren
jarraipenerako
aplikazioen erronka:
eskubide indibidual
eta kolektiboak
zaintzea**

LANEAN EUSKARAZ

IVAP-IZOren itzultzaile
automatiko neuronal
juridiko-administratiboa

MANU ARRASATE





ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Zuzendaritza:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:

Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta

inprimatzea:

Itzaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:

Xabier Amatria, Manu Arrasate, Nerea Arrien, Begoña Ayerdi, Urtzi Barrenetxea, Unai Brea, Oihana Cabello, Miel A. Elustondo, Irene Fernandez, Libe Goitia, Joana Jaureguizar, Luma, Javier Martinez Aldanondo, Amaia Olabarrieta, Gorka Jakobe Palazio, Nerea Pikabea, Julen Ribas, Izaskun Zuntzunegi

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

- 2 Marrazkia**
JULEN RIBAS
- 4 Pertsonaia**
Kerman Lejarraga
NEREA PIKABEA
- 6 Eztabaida**
COVIDaren jarraipenerako aplikazioen erronka: eskubide indibidual eta kolektiboak zaintzea
OIHANA CABELLO
- 12 Elkarrizketa**
Juan Luis Ibarra:
«Estatu mailako sistema da gure justizia administrazioa, baina, aldi berean, europar sistemaren parte gara»
MIEL A. ELUSTONDO
- 18 Leihatila**
Fas(t) fatum III-V
LIBE GOITIA ARTETXE
- [ARIKETAK]
- 19 Leihatila**
Kaixetak
NEREA ARRIEN
- 20 Erreportajea**
Cohousing, bizikidetzari esanahi betea eman nahi dion etxebizitza-eredua
UNAI BREA
- 25 Lanean euskaraz**
IVAP-IZOren itzultzaile automatiko neuronal juridiko-administratiboa
MANU ARRASATE
- 28 Giza baliabideak**
Adimen artifiziala desmitifikatzen (I)
JAVIER MARTINEZ ALDANONDO
- 30 Informazio eta komunikazioaren teknologiak**
Bilatzaileak, hamaika zerbitzu eskainiz
GORKA JAKOBE PALAZIO
- 32 Hezkuntza**
Familia homoparentalen trataera ikastetxeetan
AMAIA OLABARRIETA
JOANA JAUREGUIZAR
- 34 Denbora-pasak**
LUMA

KERMAN LEJARRAGA, BOXEOLARIA:

«Sakrifizio handiak egin beharra dago eta asko zaindu behar da»

NEREA PIKABEA
KAZETARIA

Sekulako ikusmina sortzen du Kerman Lejarragak (Morga, 1992) foku batek argizatutako ring-era igotzen den bakoitzean, harmailetan ilunpean dauden milaka zaleen gozagarri. Harro erakusten ditu gorputzeko tatuajeak. Gogotsu agertzen da aurkariaren aurrean. Indartsua da bizkaitarra, jotzailea. Ukabilkadak, ordea, alde zurretik pentsatutako eta landutako kolpeak dira. Aurkariarekiko errespetua oinarrizkoa da boxeoa. Ukabilkadak emateko ez ezik jasotzeko ere prestatuta egon behar du boxeolari batek. Horretan dihardu 2013an Bilboko Casillan debuta egin zuenez geroztik, Txutxi del Valle entrenatzailearen laguntzarekin. MGZ Boxing enpresak antolatzen du haren jarduera. Bere ukabilkada Estatu Batuetaraino ere iritsi da.

Nolatan hasi zinen boxeatzeko? Zure inguruan izan al da boxeolaririk?

Nire lagunetako baten bidez, Asierren bidez, ezagutu nuen gaur egun nire entrenatzailea dena, Txutxi Del Valle. Nire familiarik ez da boxeolaririk izan, baina osaba judoka da eta hark bultzatu ninduen boxeatzeko hasiera. Kickboxingean aritu nintzen hasieran, baina azkenean boxeoa aritzea hautatu nuen.

Txikitan, ba al zenekien zer zen boxeoa aritzea?

Banekien zer zen boxeoa, baina ezagutza handirik ez neukan. Poli Díaz edota Tyson ezagutzen nituen, baina horrez gain, informazio askorik ez neukan kirol honi buruz.

Zure familiakoek erreloak izan omen zituzten hasieran...

Nire familiakoek errespetu pixka bat zioten boxeolari, normala da, baina azkenean babesa eman zidaten. Beti neure alboan izan ditut, eta gaur egun ere ondoan egoten dira beti.

Boxeoa kolpeekin eta ukabilkadekin lotzen da beti. Ez dauka ospe onik, ezta?

Indarkeriarekin lotzen da beti, baina kirol oso noblea da. Burua asko erabili behar da kirol hau praktikatzeko, estrategietan pentsatu behar duzu. Ezaugarri positibo asko ditu boxeoa. Hemen ere aldatzen ari da jendeak boxeolari buruz duen iritzia. Harmailetan ez da istilurik izaten eta giro oso ona egoten da.

Akordatzeko al zara profesionaletan jokatu zenuen lehen aldiaz? Non egin zenuen debuta?

Profesional gisa Bilboko Casillan igo nintzen lehen aldiz ring-era. Jair Cortesen kontra borrokatu nuen. Gainera, aurreneko aldi horretan, eskua puskatu nuen!

Boxeolariak izengoiti bat izan ohi duzue. «Morgako errebolbera» deitzen dizute zuri. Zergatik izen hori?

Errebolber baten irudia tatuatuta daukat gorputzean. Hori dela eta hasi zitzaizkidan horrela deitzen. Andoni Gago neure boxeolari kideak jarri zidan goitzen hori.

Orain arte welter pisuan jokatu duzu, eta, gaur egun, super welteren zaude, hau da, pisu gehiagoko maila batean. Ze desberdintasun dago bi mailen artean? Zergatik aldatu zara maila batetik bestera? Erosoago ari al zara super welter mailan?

Bai, gutxiago kostatzen zait super welter mailan egotea. Welter maila gogorra egiten zitzaidan. Urte asko eman ditut maila horretan. Super welter pisura pasatu berri naiz eta, egia esateko, erosoago sentitzen naiz pisu honetan.

Ohituta gaude futbolari edota pilotarietako nola entrenatzen duten ikusten. Baina boxeolarien prestakuntzaz ezer gutxi dakigu. Nola prestatzen zara borrokaldirako?

Argazkia: Ángel de la Iglesia

Goizean goiz jaiki eta prestakuntza fisikoa egiten dut; korrika egitera joaten naiz eta pisuak altxatzen aritzen naiz. Arratsaldean, berriz, lan teknikoa egiten dut, boxeorekin lotutako mugimenduak eta estrategiak lantzen. Nire mugimenduak aztertzen ditut, ahulguneak identifikatu eta horiek zuzentzen saiatzen naiz. Txutxi Del Valleren laguntzarekin egiten ditut zuzenketa horiek guztiak; bera da nire prestatzailea.

Diziplina handia behar al da goi mailan egoteko? Elikadura, atsedena eta entrenamenduak asko zaintzen al dituzu?

Ondo ibili nahi baduzu, derrigorrezkoa da horiek denak zorrotz betetzea. Sakrifizio handiak egin beharra dago eta asko zaindu behar da (*barre artean*).

Espainiako eta Europako txapeldun izan zara. Porrotak ere izan dituzu. Nola eramaten duzu irabaztea edota galtzea? Europako txapeldun izatea gauza handia izan zen niretzat; amets bat egia bihurtu zen. Porrota, berriz, sekulako kolpea izan zen, kontuan izanda nola joan ziren gauzak, baina, aldi berean hanka-sartze horietatik asko ikasi dut. Porrotek susperitzen laguntzen didate eta aurrera egiteko sekulako indarra ematen didate.

Duela hiru urtez geroztik, Estatu Batuetako borrokaldietan parte hartzen duzu. Nolatan sortu zaizu bertan jokatzeak aukera? Zer esan nahi du bertan boxeatzek?

Nire beste ametsetako bat bete da Estatu Batuetan jokatzearekin. Hala ere, egia aitortuko dizut: guk, hemen, ez diogu inori inbidiarik izan behar; gu gai gara hemen 10.000 lagun boxeoa borrokaldi bat ikustera erakartzeko. Ingalaterran ere jokatu nahiko nuke; ez dut horretarako aukerarik izan. Eta Munduko Txapelketan parte hartzea ere gustatuko litzaidake.

Ematen du Euskal Herrian boxeoa indarra hartzen ari dela. Gero eta borrokaldi gehiago antolatzen dira eta



gero eta haur gehiago ari dira boxeoa eskolak jasotzen. Bide onetik al doaz gauzak hemen?

Bai, egia esateko, boxeoa osasuntsu dago hemen. Kontuan izan behar da boxeolariak, lehenago ere, ospe handia izan dutela Euskal Herrian. Boxeorako zaletasuna handitzen ari da eta hori gauza ona da.

Maravilla Martínez boxeolari ohi argentinarrak, munduko txapeldun izandakoak, erronka jarri dizu: bere aurka jokatzeak proposamena egin dizu. Bera, jada, erretiroa hartuta dago, baina prest egon omen daiteke berriro ring-era igotzeko. Zer iruditzen zaizu proposamena? Aurrerapausorik izan al da?

Maravilla Martínezek nirekin jokatzeak gogoia edukitzea sekulakoa da, ohore bat izango litzateke niretzat; makina bat aldiz ikusi dut borrokatzen. Baina orain-

goz ez dago ezer baieztaturik. Edonola ere, ni edozeinen aurka borrokatzeko prest nago.

Zein boxeolarik liluratsen zaitu? Ba al dago miresten duzun norbait?

Nazioarte mailan gogokoak ditut, esate baterako, Mathysse, Cotto eta Canelo. Estatu espainiarri dagokionez, berriz, nire adiskidea, Andoni Gago, asko miresten dut, eta baita Ruben Nieto eta Castillejo ere.

Zein dira urte honetarako eta datorren urterako dituzun helburuak?

Europako txapeldun izan nahiko nuke berriro.


Noraino iritsi nahiko zenuke boxeolari profesional gisa? Ba al duzu ametsen bat?

Munduko txapeldun izatea litzateke nire ametsik handiena. ■

COVIDaren jarraipenerako aplikazioen erronka: eskubide indibidual eta kolektiboak zaintzea

OIHANA CABELLO

KAZETARIA




G utxi dira egunerokotasunean mugikorretik kudeatu ezin daitezkeenak: lana, aisialdia, erosketak, ordainketak, harremanak... eta baita osasuna ere. Medikuekin zita hartzeko nahikoa dugu mugikorra, edota analisisien emaitza jasotzeko ere baliatu dezakegu. Orain, koronabirusaren pandemia bizi dugun honetan, SARS-CoV-2 birusaren eragina eta hedapena neurtzeko eta kontrolatzeko erabili nahi dituzte mugikor pertsonalak. Helburu horretarako, hainbat aplikazio sortu dituzte munduko herrialde eta erakunde ezberdinek.

Zein da aplikazioen helburua? Kasu positibo bakoitzaren trazabilitatea zehaztea infekzio fokuak eta birusaren hedapena

kontrolatzeko. Horretarako, badaude geolokalizazioa erabiltzen duten aplikazioak; alegia, datu pertsonalak eskatzen dituztenak. Beste batzuek erabiltzailea gaixo egon daitekeen neurtzen dute. Adituek diote Bluetootha erabiltzen duten aplikazioak izan daitezkeela eraginkorrenak eta erabiltzailearen pribatasuna zaintzeko fidagarrienak. Kasurako, Alemaniak aurkeztu duen Corona Warm Up.

Eztabaidan dagoena, azken finean, komunitatearen osasun-eskubidearen eta gizabanakoaren pribatasun-eskubidearen arteko gatazka. Gaiari buruzko argi bila hainbat aditurengana jo dugu. Batzuek ezezkoa eman ondoren, beste zenbaiten iritziak bildu ditugu hurrengo lerroetan.



IBON SANTIAGO

Biofisikaria eta ikerlaria Municheko Unibertsitate Teknikoan (TUM)

«*Komeni da COVID app-ak Europa osoan estandarizatzea*»

Herrialde gehienek mugikorrerako aplikazioak sortu dituzte COVID-19aren eragina kontrolpean edukitzeko. Ezagutzen dituzunen artean, ba al dago eraginkorrik?

Oraindik ez dakigu eraginkorrak izango diren. Europan aplikazio horiek ez daude oso hedatuta. Asiako aplikazioak hartu behar ditugu erreferentziaz; Txinan, Singapurren eta Hego Korean, adibidez, aplikazio guztiz ezberdinak eratu dituzte. Europan baditugu hainbat modelo, eta aipatu dezakegu Alemaniako Gobernuak ekainaren 16an aurkeztu zuena: Corona Warm App. Lehenengo egunean milioi bat lagunek deskargatu zuten aplikazioa.

Zein dira aplikazioen arteko desberdintasunak?

Zentralizatuak baldin badira, pribatutasun-arazoak sor ditzakete: zure mugikorrak datuak bidaltzen ditu ordenagailu zentral batera; horrela, jakin daiteke positibo eman duen pertsona bat nondik ibili den eta norekin egon den harremanetan. Alemaniak sortu duen aplikazioak, aldiz, datuak deszentralizatuta ditu, hau da, datuak mugikorretan geratuko dira.

Nola funtzionatzen du?

Mugikorrak seinale enkriptatu bat sortzen du 15 minutuero eta, Bluetooth bidez, inguruan dauden mugikorretara bidaltzen du. Beste mugikorrek seinale hori jasoko dute, eta positibo ematen baduzu, ospitalean positibo eman duzula baliozkotuko dute; horrela, seinale enkriptatua jaso duten mugikor guztiak hartuko dute abisua. Hori da teknologia

horren punturik interesgarrienetakoa; hain zuzen, Bluetooth seinalearen intentsitatearen arabera, aplikazioak badaki beste pertsonengandik zein distantziara egon zaren, bai eta zenbat denbora egin duzun ere. Gainera, Alemaniak garatu duen app-a *open source* da: irekia da, eta edonork baliatu dezake.

Eta pribatutasuna bermatu daiteke?

Alemaniak aplikaziorako metodo deszentralizatua erabiltzea aukeratu zuen. Eztabaida eman da hasieratik eta ondorioztatu dute jendea mesfidati agertu zirekeela aplikazio zentralizatu bat garatuz gero. Alemaniarrak pribatutasunarekin zerikusia duten kontuekin oso ardurasuak dira. Aplikazioak galdetzen duen gauza bakarra da Bluetootha piztu nahi duzun ala ez, eta erabiltzaileak ez du bestelako informaziorik eman behar.



Beraz, eraginkorra dela esango zenuke?

Sistema deszentralizatua izateak alde epidemiologikotik baditu alderdi negatiboak: datuak ordenagailu zentralizatu batean jasotzen ez direnez, zaila da jakitea A pertsonak B pertsona kutsatu duela. Aplikazioaren helburu bakarra da *contact tracing* (arrastoen zantzua) lana egitea; hau da, inork positibo emanez gero, segituan galdetu behar zaio ingurukoak edo gertukoak nortzuk diren eta norekin egon den azken bi asteetan. Prozesu horrek denbora dezente darma. Aldiz, aplikazioak, positibo ematen den momentutik abisatzen dituzenez kontaktuak, katea ahalik eta arinen moztea ahalbidetzen du. Digitalizatuta dagoenez, zure kontaktuak ez ezik, zuegandik gertu egon diren pertsona guztiak identifikatu daitezke: bai metroan, autobusean...

Hori ez da gertatzen zentralizatuta dauden aplikazioekin?

Gerta daiteke. Txinako aplikazioa, adibidez, oso sinplea da. Kolore gorria, berdea eta horia dituzu. Kolore berdeak adierazten du ondo zaudela, eta gorriak

EZTABAIDA



dio etxean geratu behar duzula, berrogeialdian. Aplikazio horrekin, kode bat emanda eta GPSa erabilita, telefonoak badaki une oro non zauden. Aplikazio horrek *tracking*-a (aztarnak jarraitu) egiten du eta ez *contact tracing*-a. Datu horiek guztiak, gainera, zentralizatuta daude; beraz, pribatutasunik batere ez du eskaintzen. Erresuma Batuko eredu ezberdina da, eta eredu ona izan daiteke. Datu zentralizatuak biltzen ditu osasun zerbitzu publikoan, eta, ondorioz, informazio gehiago jaso dezakete datu epidemiologikoak hobeto kalkulatzeko. Jakin dezakete, adibidez, auzo batean zenbat kasu positibo egon diren. Horrelako datuak lortzeko aplikazio zentralizatuak behar dira.

Aplikazioen erabilera derrigortzea baliagarria izan daiteke pandemia kontrolatzeko?

Txinan derrigortu egin dituzte herritarrek aplikazioa edukitzera. Epidemiologikoki, ikerketek diote biztanleen %60ak aplikazioa erabiliko balu, posible litzatekeela birusaren bigarren uholde bat geldiaraztea. Baina jende gutxiagok izanda ere baliagarria izan daiteke. Ez daukagu txertorik, eta epidemia ez da amaitu. Beraz, aplikazioei esker, gure arriskua (kutsatzeko probabilitatea) kalkulatu dezakegu.

Jendea mesfidatia da aplikazioak instalatzerako orduan. Uste duzu gizartea

jabetzen dela gaixotasunaren larritasunaz?

Agian ez. Jendea hasia da maskarak kentzen, eta asko erlaxatzen. Hori seinale txarra da, epidemia ez baita amaitu. Pekinen kasu berriak agertu dira, baita Euskal Herrian ere. AEBetan, hasi baino ez da egin pandemia. Baina Alemaniaren erreferentzia hartuta, ikusten dut bai Gobernuak bai komunikabideak hasiak direla kanpaina indartsua egiten aplikazioa erabiltzeko. Gehiengoak WhatsApp erabiltzen du. Behar dena da WhatsApp erabiltzaile horiek Corona Warm App ere erabiltzea. Pribatutasun kontuengatik arduratuta daudenez pentsa dezatela WhatsApp erabiltzeak dakarren arriskuan; izan ere, elkarrizketa guztiak irakurri eta entzuten ditu.

Eusko Jaurlaritzak COVID19.eus aplikazioa sortu du. Egokia ikusten duzu?

Sintomak eskatzen dizkizu. Sintometan zentratzen diren aplikazio asko daude. Eredu hori ez da Bluetootha erabiltzen duena bezalako. Osakidetzaren aplikazioa, berriz, gehiago hurbiltzen da Erresuma Batuak garatu duen eredurra: PCR testan oinarritzeaz gain, sintomak ere kontuan hartzen ditu; horrela, erabiltzaileak sintomak sartzen ditu, eta aplikazioak kalkulatu du daukan arriskua modu zentralizatuan.

Eta aplikazio guztiak eraginkorrak dira? Edo arriskutsua izan daiteke kutsatzeko

probabilitatea erabiltzaileak eman nahi dituen datuen arabera neurtzea?

Agian, ez du jende askok erabiliko aplikazioa. Galdera asko erantzun beharra ez da erakargarria, eta zailagoa da kasu egitea. Bestalde, aplikazioaren erabilera Europan estandarizatzearen arazoa ere ikusten dut: esaterako, Alemaniara banoa, ezin dut hango gobernuaren aplikazioa erabili. Nolabait, eztabaida hori behar da herrialde gehiagok erabil dezaten aplikazioa. Turismoari laguntzeko ere komeni da COVID App-ak Europa osoan estandarizatzea.

European aplikazio erabilgarri bateratua izateak lagunduko luke birusaren bigarren uholde bat geldiarazten?

Bai, oso ideia ona izango litzateke. Baina aspektu legalak ere kontuan hartu behar dira. Europan osasun kontuak nazio/estatuen menpe daude, eta Europako Bartzordeak ez du botererik horretan. Beraz, hori herrialde guztiek adostu beharko lukete. Badaude ikerketak zeinak dioten *contact tracing* hori oso baliagarria dela izurriteak gelditzeko, batez ere, epidemiaren hastapenetan. Hasieran, infekzioak esponentzialki biderkatzen dira, eta lehenengo momentutik infekziofokuak identifikatu ahal badira, agian, pandemia ekidin ahal izango da. Beraz, etor daitezkeen uholdeak geldiarazteko ere erabilgarria izan daiteke, sortu daitezkeen kasuak identifikatzeko eta eten ahal izateko. ●



ENRIQUE DANS

Berrikuntza irakaslea IE Bussiness School-en

«Aplikazioen erabilerak transmisio-katea eten dezake»

Diozunez, datuak erkatzeko aplikazioak eraginkorrak izan daitezke pandemiari aurre egiteko. Zergatik?

Pandemiaren fase aurreratu batean oinarritzkoena da infekzioen trazabilitateari jarraipena egin ahal izatea. Agian edozein pandemiatan ez litzateke eraginkorra izango, baina arnas arazoak sortzen dituen gaixotasunen kasuan, sintomak egun batzuetara nabaritzen dira, eta egun horietan gaixo dauden pertsonak beste batzuk kutsatu ditzakete. Beraz, oso garrantzitsua da detektatu ahal izatea pertsona bat arriskuan dagoela; gaixo egon daitekeela sintomarik eduki ez arren. Aplikazioen bitartez, jakin daiteke norbait kutsatuta egon daitekeen baldin eta gaixorik dagoen norbaitekin kontaktuan egon bada.

Aplikazio hauek erabilgarri izan balira pandemiaren hasieran, errazagoa zatekeen kontrolatzea?

Ziur asko, bai. Baina hori ezinezkoa zen, birusa ezezaguna baitzen eta ez genekie-

lako ezer: ez zikloak, ezta zenbat denbora igaro daitekeen sintomak agertu arte. Beraz, oso zaila zatekeen aplikazioa garatzea. Orain, eskarmentu pixka bat badugu, eta jakin beharreko gutxienezko badakigu aplikazioak praktikan jartzeko. Momentu honetan, hartu zitekeen segurtasun neurririk gogorrena lasaitzen ari da: konfinamendua. Konfinatuta egotea ez da puntako teknologia, hain zuzen. Erdi Aroko neurri bat da, nolabait esateko. Orain, teknologia aurreratuagoa erabili dezakegu, eta erabili beharko genuke; berriro konfinamenduan sartuz gero, ezinezkoa izango baita jarduera ekonomikoarekin jarraitzea.

Aplikazioek eskaintzen diguten teknologia eraginkorra da kasu berriak agertuz gero? Eta aplikazioen erabilera derrigorrezkoa izateak lagunduko luke? Dudarik ez. Gehitzea den guztia onuragarria da. Are gehiago, aplikazio gutxi batzuk bakarrik instalatu arren, baliagarria da. Adituek diote aplikazioak baliagarriak direla herritarren %60 baino gehiagok erabiltzen dituenen, baina, baliagarriak dira lehenengo momentutik. Bluetootha erabilia, gainera, jakin daiteke positibo eman duen pertsona bat zenbateko distantziara egon den, eta zenbat denbora egon den kontaktuan beste batzuekin. Positibo den norbaitekin leku itxi batean ordubete eman baduzu, kutsatzeko arrisku altua duzu. Alderantziz, kalean gurutzatu bazara, arriskua ia hutsala da.

Badaude Bluetootha erabili beharrean, bestelako bitartekoak erabiltzen dituztenak: datuak eta sintomak sartzea, GPSa... Edo datuak zentralizatzen dituztenak eta deszentralizatuta dituztenak. Zein dira batzuen eta besteen abantailak?

Kontuan izan behar da erabiltzaile xume batek ez duela aplikazioen analisi sakona egingo. Haren gogoeta nagusia izango da ea arriskutsua izan daitekeen bere kokapena identifikatzeko gai den aplikazio

bat instalatzea. Baina jendeak jakin beharko luke aplikazio batek geolokalizazioa derrigortzeak pribatutasun arriskua dakarrela. Aitzitik, Bluetootha erabiltzen badu, ez du zertan mehatxu bat izan. Izan ere, datuak hodeira igotzen dituen aplikazioak pribatutasun arrisku handiagoa dakar datuak telefonoan gordetzen dituen aplikazioak baino. Applek eta Googlek aplikazio horiek optimizatzeko elkarrekin lan egin izanak adierazten du datuen trazabilitatea pribatutasuna mehatxatu gabe egitearen erronka tekniko oso konplexua izan dela. Arazo horri irtenbidea eman zaio, ordea. Eta, gainera, metodo horretan oinarrituta, Europako herrialde desberdinek garatzen dituzten aplikazioak bateragarriak izan daitezke. Bestalde, Txinako eredu dago. Aplikazioa erabiltzera derrigortu ditu herritarrek. Herrialde horretan pribatutasuna ez da kontuan hartzen normalean.

Espainiako Gobernuak aurkeztu zuen aplikazio ereduak datuak biltzea zuen oinarri.

Ez zegoen bideratuta kontaktuen trazabilitatea egitera, baizik eta erabiltzaileak bere sintomak sartzera, eta erabiltzaileak berak adierazten zuen aplikazioan infektatuta zegoela. Ez du ez hanka ez buru. Oinarritzko diagnostikoa egitera bideratuta zegoen; oso sinplea. Hori da aurkeztu zuena, baina gaur egun ez dakigu zein asmo duen. Badirudi European bateragarri izango den aplikazioa garatzeko akordiotik kanpo geratu dela. Antza denez, Espainiako Gobernuak ez da aplikazio mota horien aldekoa. Atzean geratu gaitzake.

Alemaniak ekainaren 16an aurkeztu zuen aplikazioa, eta lehenengo 24 orduetan milioi bat erabiltzaile zituen.

Herrialderen batek pribatutasuna bereziki zaintzen badu, hori Alemania da. Ordainketak ere diruz egiten dituzte txartelarekin egin beharrean, pribatutasuna gordetzeko. Beraz, alde horretatik aplikazioa Alemanian eraginkorra bada,

edozein lekutan izan daiteke baliagarria. Are gehiago, Espainiarentzat berebizikoa izan daiteke aplikazioa erabiltzea, hango turista asko hartzen baititu. Europako herritar asko helduko dira eguzki bila, eta datuen trazabilitatea egiten duen aplikaziorik ez badugu, arriskuan egongo gara eta arriskuan jarriko dugu jende asko.

Europar datuak erkatzeko aplikazio bakarra posible litzateke? Bidean da?

Garapen-markoa adosten ari dira. Alemaniak, Belgikak eta Europako herrialde gehienek Googlek eta Applek diseinatutakoa hartu dute oinarritzat. Gero, herrialde bakoitzak bere erara pertsonalizatu dezake, gauzak gehitu... Baina, printzipioz, trazabilitatea ahalbidetu

beharko lukete, Bluetootha edozein lekutan baitago erabilgarri. Mugikorrek emititzen duten kode enkriptatu hori beste mugikorrek jasoko dute. Hori da oinarria. Gero, aplikazioaren arabera, hodeian gordeko dira kodeak, edo norberaren mugikorrean. Singapurren, beste eredu bat darabilte: besokoarena. Txip bat dute besokoek, eta horrek emititzen eta gordetzen ditu kodeak, beste besokoena edo Bluetootha erabiltzen duen edozein gailurenak. Ez du ez GP-Srik, ezta Internetera konexiorik ere. Medikuek besokoa eskatuko die positibo ematen dutenei; eta horrela, pribatutasuna zaindu daiteke.

Epidemiologikoki, nola lagun dezakete aplikazioek birusa kontrolatzen?

Abisua hartzen duen pertsona orok froga egingo du ahalik eta lasterren, edo konfinamendua gordeko du. Horrela, transmisio-katea eten daiteke aplikazioa erabiliz gero.

Eta jendea kontziente da aplikazioen garrantziaz?

Jendeak analisi sinpleak egiten ditu, eta Gobernuak sortutako aplikazioa denez, pentsatzen du kontrol neurri bat izan daitekeela. Hausnarketa horrekin ez goaz inora. Horregatik da garrantzitsua ondo informatzea eta jendeari segurtasuna transmititzea. Erabiltzen den teknologiaren gutxieneko ezagutza eskaini behar da. Teknologia ez da ona, ez txarra: erabileran dago gakoa. ●



JESUS SOLER LORENT

Global Factory aholkularitza enpresako zuzendari juridikoa eta abokatua

«Bizi dugun egoera bereziak behartu gaitu erabaki azkarrak hartzera, taldeak babesteko»

Mugikorraren erabilera gizartea kontrolatzeko bitartekoa izan daitekeelako mitoarekin bat egiten duzu?

Mitoa baino gehiago da. Telekomunikazio sistemek, oro har, erabilera eta komunikazioaren trazak sortzen dituzte, eta gero erabili daitekeen informazioa gordetzen dute. Geolokalizazioa, zein ordutan komunikatzen garen, zenbat

denbora ematen dugun norbaitekin komunikatzen, helbide elektronikoak, kontsumitutako datu kopurua... Hori guztiori, modu indibidualizatuan edo orokorrean aztertuz gero, informazio berria eman dezake. Eztabaida sortzen da informazio horren erabilerari buruz ari garenean. Ez da gauza bera telekomunikazioak hobetzeko erabiltzea edo norbanakoaren kontrola egiteko. Azken kasu horretan, kasuz kasu aztertu beharko litzateke norbanakoaren ala kolektiboen eskubideen alde egin behar den.

Herrialde gehienek pandemia kontrolatzeko aplikazio bat garatu dute. Baita Euskal Autonomia Erkidegoak ere. Oro har, herritarren pribatutasuna gordezten da?

Bizi dugun egoera bereziak behartu gaitu erabaki azkarrak hartzera, taldeak babesteko. Gauza batzuk gaizki egin dira, beste batzuk ondo, baina oinarria izan da egoerak gainezka ez egiteko izan dugun



premia. Lehenengo momentutik pribatutasuna zaintzearen alde egiten duten erakundeek jarrera posibilista erakutsi dute, eta osasun arduradunen esku utzi dute jarraitu beharreko neurrien erabakimena. Gogoan izan behar da Europako 2020/518 gomendia, 2020ko apirilaren 8koa, zeinak teknologia eta datuak erabiltzearen alde egiten duen COVID-19ak sortutako krisia gainditzeko. Mugikorren eta mugikortasun datu anonimoak erabiltzearen alde egiten du gomendio horrek, hain zuzen. Hala ere, aplikazio denek betetzen dute % 100ean datuen babeserako araua? Galdera horri erantzutea zaila da, ez baitugu datu fidagarriak; izan ere, aplikazioen testatzea ez dute enpresa independenteek egin.

Aplikazio horien garapena enpresa pribatuen esku utzi dute administrazio publikoek. Zein baldintza bete behar dira erakunde publikoek herritarren datuak enpresa pribatuen esku uzteko?

Sektore publikoaren kontratazio arauet gain, betekizun eta baldintza zorrotzak eskatzen ditu horrek. Gainera, urriaren 31ko 14/2019 Errege Dekretuaren bitartez, premiazko neurriak hartu ziren administrazio digitalari dagokionez, arlo publikoko kontratazioak eta telekomunikazioak arautzeko. Eskematikoki: kontrolak kontratazioaren aurretik hasten dira, pribatutasunaren eskema egiteko diseinua egiten denetik. Arriskuak gutxitzeko, erabiliko dituzten teknikak aztertzen dituzte, baita pribatutasunari nola eragin diezaioketen. Azterketak sistema fidagarria dela ondorioztatzen duenean, datuen babeserako araua jarraitzeko oinarriak ezarri behar dira kontratazioan, arriskuak ekiditeko. Bes-

teak beste, sistemaren makinen kokapena ezarri behar da, bai eta identifikazio, egiaztatze eta sinadurarako bitartekoak ere. Administrazioaren eskakizunak beteko direla ziurtatzeko, datuen babeserakin zerikusia duten betekizunak berriro sinatu behar ditu esleipendunak. Pauta guztiak jarraituz gero, kontratazioak fidagarria izan behar du, eta berdin dio publikoa edo pribatua den.

Legezkoa eta zilegizkoa da enpresa pribatuek herritarren osasunari buruzko datuak hartzea?

Galdera hau gehiago zehaztu beharko litzateke. Zerbitzu publikoentzako aplikazioa garatzen duten enpresek administrazioaren berak zehaztutako informazioa bakarrik gorde eta bildu dezakete. Beraz, zehaztutako horretatik kanpo biltzen den edozein daturen gainean enpresa bera izango litzateke informazioaren tratamenduaren arduraduna, eta ez luke legitimazio juridikorik edukiko. Horregatik, enpresa pribatuek tresna informatikoak garatu ditzakete, baina biltzen duten datu bakoitza erabiltzeko administrazioaren baimena eduki beharko dute. Bestela, zigor ekonomikoak izugarriak dira.

Asiako zenbait herrialdek derrigortu egin dituzte herritarrek aplikazioa erabiltzera. Posible ikusten duzu horrelako neurriak Euskal Autonomia Erkidegoan?

Eztabaidatu da horren inguruan, eta ez dute ezezko borobilik eman. Hala ere, baldintza batzuk bete beharko lirateke horrelakorik ezarri aurretik. Lehenik eta behin, autoritate eskudunak baimendu behar du, eta pisuzko arau batean oinarritu; arau horrek adierazi behar du,

batetik, pandemiari aurre egiteko beharrezkoa dela, eta, bestetik, lortu behar diren onurekiko proportzionala izango dela. Eztabaida mahai gainean dago, eta pandemiaren nondik norakoan arabera onartuko dute, edo ez.

Adituek diotenez, datuen erabilera mugatua izan behar da bai denboran bai helburuetan. Hori bermatu daiteke?

Horrela izan behar du. Datuen izazera eta erabileraren iraupena Europako 2016/679 araudiaren 5. artikuluan dago jasota. Herritarren bat ohartuz gero aplikazioaren batek ez dituela neurri horiek betetzen, kontrol erakundeei jakinarazi behar die.

Zein bitarteko dituzte herritarrek beren datuak behar bezala erabiliko dituztela jakiteko?

Lehenik eta behin, erabiltzaileak aplikazioaren lege oharra irakurri behar du. Bigarrenez, lege oharra irakurtzean zailentzat badu, tratamenduaren arduradunarekin kontaktuan jarri daiteke. Aipatu beharreko hirugarren gauza da, indarrean dagoen legediaren arabera, herritarrek harremanetan jarri daitezkeela aplikazioaren arduraren duen administrazioaren datuen babeserako delegatuekin, horretarako zehaztutako bideak erabiliz. Azkenik, kontrolerako agintarengana jo daiteke. Aukera horiek guztiak abokatu baten aholkularitzarekin egin daitezke: urteak daramatzagu gizar-tean gure lekua egiteko eta herritarren eskubideak defendatzeko formakuntza jasotzen. Nire ustez, horrek guztiak aukera ematen du herritarrek seguru egoteko, aplikazioak konfiantzaz erabili baititzakegu. ■

JUAN LUIS IBARRA,

EAEKO AUZITEGI NAGUSIAREN PRESIDENTE OHIA

«Estatu mailako sistema da gure justizia administrazioa, baina, aldi berean, europar sistemaren parte gara»

MIEL A. ELUSTONDO

[ARGAZKIAK: ZALDI ERO]

Hirugarren eguna zuen erretiraturik. Bidalia genion elkarrizketaren balizko gidoia, Covid-19ak eragindako egoera gogoan, guztiok partekatu ditugun bizipenak abiapuntu, justizia administrazioaren barrunbeetara heldu nahirik, baina laster hartu zion gaina elkarrizketari Juan Luis Ibarra Roblesen (Sopela, 1948) diskurtsoak, noiz justiziaz, noiz epailez, eta, ororen gainetik, «filosofiaz», amaieran berak sententziatu edo epai eman duenez, epaileari, erretiratuari ere, dagokionez.



Ez zaitugu erretiratu zaharra... Zein izan dituzu uneko sentipen, emozio eta pentsakizunak?

Ororen gainetik, bi, funtsezkoak. Bate-tik, egundo ez nuen pentsatuko hamar urte honetan estimuko hainbeste harreman egiterik. Gure lanean, erakundeen arteko erlazioek agintzen dute, eta, horiek aski formalak ohi dira guztiz gehienetan. Aldiz, erretiratu aurreko egunetan, zeharo ugaztunak, guztiz gizatiarrak garelara jabetu naiz: batzuek eta besteek beren sentimenduak adierazi dizkirate, eta hori sekulakorik atsegina gertatu zait. Sari ederra ez ezik, sari zoragarria da. Bestetik, ni jendea besarkatu zalea naiz, zale handia, eta pandemia zela kausa inor besarkatzeko modurik ez izatea harrigarri gertatu zait. Agur aparta izan da eta, aldi berean, arrotz eta estrainioa.

Zeure ibili profesionalari kito egitea duzu erretiroa...

Bai, eta aldi batetik nostalgiak jo nau, egin nahi nituzkeenak eta egin ez ditudan gogoan, baina behin eta berriz eta askotan burura etorri zaidan pentsamen-dua beste bat izan da. Alegia, «Beharrik, ez dut nik egin behar ondoren datorren lana!».

Zer esan nahi duzu?

Justizia administrazioak ondoko hilabeteetan ez ezik, ondoko urteetan egin beharko dituen lanez ari naiz. Garai latzak datoz, Covid-19ak martxoaren 14tik ekainaren 4ra bitartean eragindako geldialdiak ondorio gaitzak ekarriko dizkigu. Ekainaren 4az gero, akzio judizialen kopurua ez handitzen eta irailean talka-planari ekiteko prestatzen saiatu gara. Izan ere, izen horixe eman dio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, «talka-plana», zeren eta pandemiak iraun duen hilabeteetan egin ez dugun lana egin ez ezik, pandemiak berak ekarritako gatazkei erantzun beharko baitiegu eta, kasu!, gatazka masiboa aurreikusten dugu. Jus-

«Iaz arte ez genuen lortu 2008ko krisitik geure onera etortzea. Eta orain, Covid-19a!»

tizia administrazioa ez dago prestaturik «mendi gailur» egoerei erantzuteko.

Egun batetik bestera lan zama ikaragarri handituko zaizuela esan nahi duzu.

Bai. Gure estatistiken arabera, iaz arte ez genuen lortu 2008ko krisitik geure onera etortzea. Eta orain, Covid-19a! Ageri denez, hala jurisdikzio sozialean, nola merkataritzakoan eta zibilean, goriak ikusiko ditugu. Ekonomia krisiak unean berean eragiten dio enpleguari, eta enplegu gorabeherak, berriz, zuzen-zuzen heldu ohi dira jurisdikzio sozialera. Merkataritza-jurisdikzioaz den bezainbatean, badakigu sozietate askoren konkurtsoak, edo kiebrak, ikusiko ditugula, eta baita norbanakoak ere, oraingo egunean norbanakoak ere sar baitaitezke konkurtsoan, beren zorrak berrordenatzen saiatzeko.

Jada igarri diozue akzio judizialak areagotu direla?

Begira, justizia jauregiek aforo neurri zorrotzak bete behar dituzte. Bilbokoan, adibidez, jende ilarak ikusi ditugu atarian, baina, batez beste, hiritarrak hamar-hamabost minutu egin ditu zain, ez gehiago. Horrek esan nahi du jendearen emana guk aurreikusi baino txikiagoa izan dela, baina badakigu horrek esan nahi duela –partez, bederen–, martxoaren 14az gero egin ezin izan dituzten

lanak egiten ari direla abokatuak; lehen-go aferak bideratzen, alegia, eta irailera arte utzi dituztela Covid-19aren ondoriozko demanda eta gainerako tramiteak.

Talka-plana aski izango da Justizia administrazioaren mantsotasunari aurre egiteko?

Mantsotasuna... Beste zenbait administrazioen lanarekin alderatuz gero –osungintza edota hezkuntza, adibidez–, egokia da justizia administrazioa mantsoa dela esatea. Gure hodeiertzean, lehen mailako auzitegietan, sei hilabetekoa da kasuak ebazteko epea. Epe hori hamabi hilabetera heldu izan denean, argi gorria piztu ohi dugu; errefortzuak jarri izan ditugu, eta hau eta hura egin ohi ditugu. Datorren bi urte honetan, berriz, bederatzi eta hamabi hilabeteren artean jarri beharko dugu hodeiertz hori. Ebazpen bat bederatzi-hamabi hilabeteetan ematea mantsoa da? Auziak berme handiak ditu, alde inplikatu guztiei entzun behar zaie, eta behar diren frogak guztiak praktikatu behar dira. Lana azkarrago egin liteke, beharbada, baina, Covid-19a agertu aurretik, europar mailako estandarretara heldurik geunden. Adibidez, Arabak Suitzak bezain arin, edo bezain mantsu, eman ohi du erantzun judiziala. Aldiz, justiziaren erabiltzaileei iruditzen zaie epaileak denbora asko igarotzen duela ebazpena eman arte. Baina Europaren mailan dago Araba. Jakina, beti daude kasu partikularrak, kasu batzuk neurritz gain luzatzen eta atzeratzen baitira, eta bestetzuk, aldiz, azkartzen, ezustean.

Horixe da, hortaz, justiziaren abiadura, hiritarrari beti mantsu iruditugatik ere.

Mantsotasunak ez du justiziaren irudi txarrik ematen, mantsotasuna eta lasaitasuna funtsezkoak baitaizkio justizia administrazioari. 33 urte egin ditut justizia administrazioan, hala unibertsitatean nola abokatutzan, eta horixe erakutsi

% 63 EMAKUMEAK

«EAEn, epaileen %63 emakumeak dira, baina non dira emakume epaile horiek? Instantzian, guztiz gehienetan, eta, oraingo egunean, baita auzitegietan ere. Egia esan, EAeko hiru auzitegietako lehendakariarik bi emakumezkoak dira. Auzitegi gorenean, berriz, bakanago dira emakumeak. Adin afera da. Emakumeak judikaturaren atal gazteena dira, eurak dira epaile gazteenak. Denborarekin, maila guztietan ere gehiago izango dira emakumeak»

zidan karrera judizialean iniziatu ninduen magistratuetako batek, Joaquín Pages-ek: «Garbi ikusten ez duzuean, utzi ezazu esekitokian». Eta horixe egin izan dut nik: aferak esekitokian utzi, harik eta auzia garbi ikusi dudana arte. Orduan bai, egia juridikoa ezarri izan dut.

Zergatik eranstean diozu kalifikatiboa? Egia «juridikoa».

Egia juridikoa ez delako egia morala. Ez gara haserre egia juridiko hori sinesgarria baldin bada! Esan beharrik ez dago, askoz hobe da egia juridiko hori egiazko egia hurreratzen baldin bada. Orogen gaintetik, eta jurisdikzio penala alde batera bazter utzirik, epaileok aurkezten zaigun deskribapen faktikoa besterik ez dugu epaitzen. Are gehiago, informazio gehiago izango bagenu ere, aktuazioetan ageri ez den jakingarriren bat, ezinongo genuke erabili. Bi mila urte darma epaileak modu horretan epaia ematen. Eta badiotsut, epaia ez da egia moralaren deklarazioa, egia juridikoarena baizik.

Epaileok oso umil izan behar dugu egia moralari dagokionean. Nahiago nuke epaiak ezarri ohi duen egia juridikoa egia moralari, egia errealarari, gehiago hurreratuko balitz, baina badakigu auzimauzi bat gertatzen denean, ez dagoela egia bat bakarrik, egiak baizik, nork bere egia duela, azkenaz beste.

Horixe idatzi zuen Gabriel Arestik: «Nik ere badut nire egia / eta bankero jaunarenak / bezainbat edo baino gehiago / balio du». Bankero jaunarenak, edo epaile jaun-andrearenak bezainbat...

Ez da gezurra. Epaileak errelato bat osatzen du, justizia egitea xede duela. Batzuetan, epaia eman eta zeure buruari diotsazu: «Oraingoan ongi atera da!», eta ongi atera da elkarren kontra lehian ari ziren pertsonen bukatutzat eman dutelako beren arteko auzia, epaiak baketu egin dituelako, nolabait. Beste batzuetan, berriz, askotan, zeure buruari diotsazu: «Aurreko epaiak ez du ezertarako balio izan, hemen dira berriz ere lehengo haiek!».

Egia juridikoa, alde batetik; egia erreal, berriz, bestetik...

Sakonean, justiziaren zentzuari buruzko afera da, zeren eta denok dugu zuzentasun zentzua, eta epaileak zuzentasunez arrazoia emango digula iruditzen zaigulako jotzen dugu auzitara. Hor bada liburu zoragarri bat, *La gracia de los jueces* [Robert Jacob, Tirant Lo Blanch arg., 2017] gai honetaz ari dena. Baina justiziak –hots, espainiar konstituzioaren arabera ordenamendu juridikoaren balio gorenak,– ez du ikustekorik «nire» justiziarekin, eta bai, haatik, legearen inperiotik eratorritzen denarekin: legea betetzea da zioa. Beharrik, egia juridikoa eta egia erreal, edo norberaren egia hori, bat datoz batzuetan. Aitzitik, bestezuetan ez, zuzenbidea mintzaira bat delako, eta mintzaira horretaz baliatzen jakitea bake juridikoari zorrotz loturik dagoelako. Zuzenbidearen mintzaira hitz egiten jakinez gero, gatazkak konpontzeko aukera izango dugu, bake juridikoren printzipioaren arabera betiere.

Zer duzu bake juridikoaren printzipioa?

Indar indibidualaren erabilerari uko egitea eta gatazkari buruzko erabakia hirugarren baten eskuetan uztea, hots, epailearenetan. Bake juridikoaren printzipioak, dena den, ez du galarazten nork bere justizia-zentzua, beste inorena ez bezalakoa, izatea. Badira zenbait justizia-zentzu, gizartearen baitan guztiz zabalduak eta, aldiz, zuzenbidean islaturik ageri ez direnak. Eta gizartearen iritzi «zuzena» denaren eta «justizia juridikoa»ren arteko gatazkan, [espainiar] konstituzioak agintzen du, «justizia herritik eratorritzen da», esaten baitu. Alegia, justiziak gizartearen balioetara egokitu behar du, baina egokitzapen hori ez da bat-batekoa, hurrik eman ere!, eta hori garbi ikusi genuen Iruñeko auzitegiak La manada auzian emandako epaian.

«Arabak Suitzak bezain arin, edo bezain mantso, eman ohi du erantzun judiziala»

Haserre handia eragin zuen epai hark.

Bai. Gero, auzitegi gorenak kasua beraztertu eta bortxaketa izan zela erabaki zuen. Orduko hartan, inoiz baino garbiago ikusi genuen gizartearen justiziarren eta justizia juridikoaren arteko eza-dostasuna. Gizarteak ez zuen zalantzarik: bortxaketa izan zen. Lehen auzitegiak, Iruñekoak, sexu gehiegikeria izan zela erabaki zuen. Auzitegi gorenak Iruñekoaren epaia zuzendu zuen, baina beti ez da horrela gertatzen. Epailleok legearen zerbitzari gara, legegileek idazten dutenaren mende bizi gara, baina, kasu!, obediencia pentsalaria da gurea. «Gogorra da legea, baina legea da» esaten denean, koska inportante bat ahanzten dugu: legerik ez dagoela legearen aplikaziorik gabe. Legea ez da existitzen, beste gabe, espainiar estatuko buletin ofizialean dagoelako, edo Euskadiko buletin ofizialean. Legea existitzen da gizarteak halako ekintza batzuk gauzatzen dituelako, eta, ororen gainetik, ekintza horiek legez arautuak direlako. Legearen eta legearen aplikazioaren artean bitartekari zenbait dituzu –epailleak, adibidez–, eta epailea inoiz ez dago bakarrik, ez gertaeren, ez zuzenbidearen aurrean. Epaillea, bizi- eta lan-eskarmentuaren ondorioz, heltzen da ikastera ezen, egia juridikoa ezartzen duenari, errealitatea ikusteko bere moduaren arabera ezartzen duela. Alegia, errealitatea ikusteko bere modu horrek baldintzaturik ari dela.

DEMOKRAZIARAKO EPAILEAK

«Mugimendu hark Trantsizio izeneko olatua justizia administrazioa hel zedin lan egin zuen. Epaille haiek demokrazia sendotzen lagundu nahi zuten, ordu arte baino askoz gardenago jokatu, konstituzioa betez, lege nagusi horrek esaten baitu epailearen erabakiek motibatuak izan behar dutela, hau da, epaileek epaian erabakiaren arrazoi juridikoak adierazi behar dituztela. 1984an hasi nintzen epaile lanean, eta orduko epaileak da Demokraziarako Epailleak. Justizia Demokratikoa izan zuen lehen izena, eta Botere Judiziala legitimazio demokratikoranzko bidean abiaraztea zen helburua. Epailari konstituziotik datorkio legitimitatea, baina besterik da legitimazioa, hori irabazi egin behar izaten baita, eta epaileak epai motibatu bidez irabazten du legitimazioa»

Frogak ere hor dira beti, hala ere.

Inoiz ez naiz gauza izan epairik idazteko, harik eta, nire iritziz, dena delako kasuan justiziaren zentzua zein den jakin ez dudan arte. Guztiarekin ere, epaia buruan garbi izanik ere, idatzi egin behar da, eta buruan ibili duguna, askotan, ez da artez idazten asmatzen. Zuzena zena pentsatu duzun horretatik auzira leize handia dago, urrats garrantzi handikoa, eta bien arteko ezberdintasuna oso handia baldin bada, oker gabiltza. Idatzi aurretik, datu guztiak ditu epailleak, ikusi ditu frogak guztiak, eta badu uste bat gertaeren gainean, eta, ororen gainetik, badaki zein zuzenbide erabili behar duen.

Dena den, epailleak «gertaeren gaineko ustea» baino gehiago izan beharko du epaia eman orduko...

Bai, baina, hasteko, epai asmo bat izan behar du buruan, proiektu bat, eta, hori duenean, gertaerekin eta zuzenbidearekin kontuak kitatzeko garaia izango du eta, orduan, beharbada, bere buruari esango

dio: «Bada, ez du delitua frogatzea lortu». Eta epailearen egitekoa da aditzera ematea akusazioak frogatzea lortu duena, ez gertatu denaz epailleak bere baitan uste duena. Horixe gertatzen da zuzenbidearekin. Ordenamendu juridikoa guztiz konplexua da, eta, nahiz batzuetan erraza den, «Hau eta hau gertatu da. Legeak halako dio. Ondorioa hau eta hura da», guztiz gehienetan korrelazio horiek logikarekin ez baina diskurtso juridikoarekin eta argumentazioarekin datoz bat.

Legea lege dela usteko nizan.

Hamalau lege ere badira jokoan! Eta nola egituratu diskurtsoa? Nola erabaki arau guztien artean, halako kasu jakin bati aplikatzeari dagokiona? Bada, horixe da epailearen autoritatea, ez du ikustekorik begiak itsututako justiziarekin. Aitzitik, epailleak ireki baino irekiago ibili behar ditu begiak, gertaerak aintzat hartuz eta egoera ulertuz jokatu behar du. Horrela eginez gero, gizarteak ere epailari ulertzea izango da normalena. Auzia ezin da



laburtu, esanez: «Gogorra da legea, baina legea da». Zorionez, hori baino askoz gizatiarragoa da epailearen bitartekaritza. Eta zer esanik ez bitartekaritza hori, epaile batena gabe, hiru epailerena denean. Epaia konstruktio bat da, nahi baduzu, batzuetan asmatzen da, eta bestetuetan ez. Zirujauak ere, bisturia hartu eta inor irekitzen duenean, ez du gaixoa sendatuko duen segurtasunik. Epaileok ere ez dugu beti justizia egiten asmatzen, baina horixe dugu xedea: soluzio zuzen bat bakarria balego bezala jokatzeko. Alabaina, errealitatea hori baino konplexuagoa da.

Azken aldia, zuzenbide kolaboratiboak ari dira EAEn zenbait abokatu, baita gatazkak konpontzeko modu kolaboratiboak ere...

Elkarte zoragarri bat ari da lanean Gasteizen [Zuzenbide Kolaboratiboko Euskadiko Elkarte]. Behin baino gehiagotan izan naiz beren jardunaldietan, gonbidatu gisa, eta badut haien berri. Nik esatera, zuzenbide kolaboratiboak ez du kasu guztietarako balio, baina zenbait gatazka zibiletan, pertsonen artekoetan, baliagarri dela iruditzen zait. Besterik da estatuarekiko, erakundeekiko edota agintariekiko gatazken kasuan; horietan bihurriagoa da gauza. Gatazka zibiletan, esaterako, zuzenbide kolaboratiboak «zero batura»

soluzioa saihesten du: «Nik irabazi, zuk galdu», «Zu zigortu egin zaituzte, ni absolutu», «Errekurtsioa onartu didate; ez didate onartu»... Alegia, betiko konponbidea hori besterik ez balego bezala: «Batak galdu, besteak irabazi». Zergatik ez dute biek irabazi behar? Baliteke uste zutena baino gutxiago irabaztea bi aldeek, baina biek irabaztea, bederen. Europar kulturaren kontziliazioa esan izan zaio horri, eta herriko jakintsuek gauzatu izan dute justizia modu hori. Espainiar estatuan, adibidez, horra non ditugun bake-epaileak, baina, badiotsut, Europa osoan ditugula horren gisako figurak. Zuzenbide kolaboratiboak erro sakonak ditu, eta ondo legoke ahalik gehiena hedatzea, nahiz eta jakin ez dela arlo guztietara helduko. Zalantzarik ez dut oraingo zuzenbide kolaboratiboa justizia administratioari lagungarri gertatuko litzaiokeela, zeren eta bi aldeek balioko akordioa epailearen aurrera eraman behar baita, epai bihurri dezan; legearen indarra izan dezan, alegia. Zuzenbide kolaboratiboa, bitartekaritzak... ederra litzateke bide horiek are gehiago sustatzea eta hedatzea.

Justizia aparatua, espainiar estatuak ari, erreforma osoa behar duela irakurri dut; legeak berri behar direla, teknologia berriak implementatu...

Hori baino lehen, nire iritziz, espainiar estatuko justiziaren erronkarik handiena europar justizia izatea da. Estatu mailako sistema da gurea, baina, aldi berean, europar sistemaren parte gara. Epaileak, nahiz europar zuzenbidearen epaile dela jakin, ez du izan denborarik Europako justizia sistema bakarraren kide dela jabetzeko. Badaude indikatzaile batzuk, Justiziaren Indizeak Europar Batasunean izenekoak, udaberriro ageri direnak. Horien artean da, lehenik, eraginkortasuna, ororen gaitasun efizientzia esan nahi badu ere; ea justiziak gatazkak konpontzen dituen, edo ez, esan nahi du. Bigarren indikatzailea kalitatea da, hau da, zein kalitate mailaz konpontzen dituen gatazkak. Hirugarrena, justizia administratioaren zerbitzu publiko eraginkor eta kalitatezko hori titularizatzen duten pertsonen independentzia da, hots, botere judizialeko epaile eta magistratuen independentzia, alegia. Horiexek dira parametroak, eta dira erronkak.

Epaileen independentzia auzitan da aspaldi.

Europako Kontseiluak lau urte ere badaramatza espainiar erresumen justizia sistema aztertzen, eta kalifikazioak aski ezkorrik dira zenbait puntutan. Epaileen independentziaz den bezainbatean,

kupula judiziala deitzen den horren hautatzea dela eta, Europako Kontseiluak dio hautatze prozesua franko hobetu behar dela. Auzitegi gorenera, edo justizia auzitegi-tako eta lurraldeetako auzitegi-tako presidentzietara helduko diren epaile magistratuen hautatzeaz ari da. Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren bidez egiten da hautatze hori, eta Europako Kontseiluak metodoa berritzeko galdegin dio behin eta berriz espainiar estatuari, magistratuen gaitasun eta merizimenduak izan daitezen, ororen gainetik, irizpideak. Hori, bestalde, beste korapilo bati loturik dago: nork hautatu behar ditu kupula judiziala, edo Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko kideak, hautatuko dituzten magistratuak? Europako Kontseiluak kritika gogorak egin dizkio hautatze modu horri, ilunpeak dituela iritzirik, bide parlamentarioen bitartez egiten bada ere.

Zertan da euskararen presentzia EAEko justizia administrazioan?

Beste zerbitzu publikoetan duen presentziarekiko, mantsoago ari gara. Badugu horretarako nazioarteko begiratoki bat ere, zeina baita Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren batzordea. Badira zenbait konpromiso, eta bi urterik behin halako kontrol bat egiten da. Izana naiz bertan bizpahiru alditan, eta eboluziorik izan dela baieztatzeko moduan nago. Bilakaera positiboa izan da, baina bide luzea egin behar da oraindik. Nire irudiko, erritmo onean aurreratu dugu justiziaren administrazioari dagokionez, baina ez, haatik, botere judizialaz den bezainbatean. Bulego judizial eta fiskalek soslai linguistikoak ezarriak dituzte, EAEko gainerako administrazioek dituztenen hein bertsukoak. Besterik da botere judiziala.

Euskaraz mintza gaitzke epailetan?

Galdera bat ez ezik, hiru egin behar dira: zein den epailearen hizkuntza, zein den auziaren hizkuntza, eta zein diren

batzuen eta besteen hizkuntza eskubi-deak. Nik uste gehiago aurreratu behar genukeela hizkuntza eskubideen aferan. Alegia, justizia administrazioa euskaraz hitz eginez jotzen duen pertsonaren eskubideez ari naiz. Helburuak ezarri genituen garai batean, baina ez dugu lortu eguneratzerik, saiatuagatik ere. Helburu praktikoak dira, ororen gainetik, eta polizia etxeei dagozkie. Jurisdikzio penalean ikusten da garbien: polizia etxeen eta epaitegien arteko harremana, hizkuntza eskubideei dagokienez, oso prekariora da. Esperientzia pilotuak egin izan dira, Tolosan, adibidez, eta oraindik ez dugu lortu protokolo bat ziurtatuko diguna euskaraz sortutako atestatu bat euskaraz tramitatuko dela epaitegian. Berez, ez dago lege behaztoparik, ardura gorabehera da. Bestetik, auzia hizkuntza batean edo bestean, edo bietan, izan dadin nahi duen jendeak jakin behar du hor badela legezko erregulazio bat, hots, botere judizialaren lege organikoa, zeinak baitio bi aldeek ados egon behar dutela izapideak euskaraz tramitatu daitezen. Eta hori ez da askotan gertatzen. Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren batzordeak hainbat gomendio egin ditu botere judizialaren lege organikoa alda dadin, dena delako puntu horretan. Guk bat egin dugu batzorde horren eskariarekin, baina lege organikoa da aldatu behar dena, eta oraingo egunean lege organiko bat aldatzea, zinez eta minenez, buruz gaineko lana da. Eta, azkenaz beste, espainiar konstituzioa dugu, epailearen hizkuntza zalantzarik gabe gaztelania dela esaten duena. Epailearen hizkuntza gaztelania da, estatuaren boterea delako justizia. Hein berean, zalantzarik gabe, zeinahi hizkuntza ofizial izan liteke auzian erabiliko den hizkuntza. Eta, hein berean, gaztelania ez beste hizkuntza ofizialen bat erabili nahi duenak horretarako eskubidea du, eta, are, arautua dago. Besterik da justizia administrazioak bitartekoak jartzen dituen edo ez hori horrela izan dadin.

EGIA JURIDIKO BAT BAKARRA

«Epaileak argumentatzen jakin behar du. Askoz ere inportanteago da argumentatzen jakitea, arauak buruz jakitea baino. Azkenaz beste, hortxe dira arauak, ordenagailuan. Garai batean buruz ikasi behar izaten ziren, egia da, eta aginduak buruz esaten zekien epailea zen onena, edo uste horretan ohi zen jendea. Oraingo egunean, horrek ez du balio. Epaileak egia juridiko bakarra aurkitzeko borondatea izan behar du; horrexen arabera jokatu, nahiz eta jakin egia juridiko bat baino gehiago ere izan litezkeela. Hala ere, egia juridiko bat bakarra balego bezala jardun behar du»

«Epailearen hizkuntza gaztelania da».

Baina euskara erabil dezake, eta erabiltzen ere du, auziaren hizkuntza euskara denean. Gisa horretara, besteak beste, diru mordoa aurreztuko da. Baina zertarako balio dio epaileari soslai linguistikorik akreditatzea? Erretiraturik nagoenez, esateko moduan naiz: balio dio hiriburura lehenago heltzeko, hau da, gutxien erabiliko duen tokira heltzeko. Euskararen ezagutza akreditatzeak, hiru urteko antzinatasuna emango dio, mugikortasuna antzinatasunak ematen baitu epaile karreran, alegia. Niri okerreko politika iruditu izan zait beti, baina... ■

Fas(t) fatum III

Bihotza eta eztarria ez ote dira goitik-beheretarako bikote paregabea?

Bizkar hezurretako inurriak ez ote dira lar leloak landa zabaletik joateko amildegira?

Sabelak ez ote dira kiroldegi bikainak? Eta bertako kirolariak? Pilota bertan botatzen dute eta eskuetara iristen da, auzoko balkoian eskegita utzita.

Eta gu ez ote gara lar inozoak? Bolak eskuetan edukita ito eta pilotekin jolasteko gai garela pentsatzen dugunean, eskuak babestu gabe ditugula ahantzita?

Maitia, hori ez al da esku-pilota? Edo kirola izateko lar hunkigarria da?

Maitia, gizonaren samina maitatzeko ezin-minak emakumearen minak ere badira, zeren luzaroan *gizonak* ez izan al dira gizakiak?



Fas(t) Fatum V

Transiberianoa;
nostalgia
karakterearen baitan
onartzean datza. Piper eta ezta
lamien ipuinen gatza,
ГҮҖИАГ-k ahazgaitz
eta dangadak iraultzaile
izendatzeari sekula ez uztean datza;
hurak, hark-hari
ez-ustea-uztea
sokatorako eskuzapiarekin mukiak,
negar anpulu-garratz-gezak
aspiragailu txinatar-konplejo-komplexuarekin
kentzen. Bada, Ez Dok Hamairu,
Zazpi-katu eta Hamaika intxaurren
gehiketa-kenketa-eragiketek
Y emateko beste inongo formularik.
Gaudi? Gaudi*k* eta gaudi*tar*ekin
noizbait mintzatu, berba, hitzordurik, solasaldirik
eduki ahal dugu?
BIBA MOSAIKO INKONEXOAK!
eta (Aokigahara)
arrosak erautsi zuen
azken
P E T A L O A.

LIBE GOITIA ARTETXE

Ariketak 109

- I. **Aukera ezazu esaldi egokia Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* kontuan hartuta.**
- Interfaze grafikoak denbora errealean erakusten du kamerak **atxitutako** bideoa.
 - Interfaze grafikoak denbora errealean erakusten du kamerak **atxitutako** bideoa.
 - Komunikabideen eta meteorologiaren garapenak zein barruko errepideen hobekuntzak zentzurik gabe utzi zituzten **atalaiak**, eta XX. mendearen erdialdetik ez dira erabiltzen itsasaldea zaintzeko.
 - Komunikabideen eta meteorologiaren garapenak zein barruko errepideen hobekuntzak zentzurik gabe utzi zituzten **talaiak**, eta XX. mendearen erdialdetik ez dira erabiltzen itsasaldea zaintzeko.
 - Aitonak kontatu zigun, 17 urte zituela, **hatua** hartu, eta Aranako San Juan iturriraino erromes joan zela, eta, ilargiaren argitan bertako uretan bainatu ondoren, larruazaleko gaixotasuna sendatu zitzaiola.
 - Aitonak kontatu zigun, 17 urte zituela, **atua** hartu, eta Aranako San Juan iturriraino erromes joan zela, eta, ilargiaren argitan bertako uretan bainatu ondoren, larruazaleko gaixotasuna sendatu zitzaiola.
 - Sobietar Batasunaren *Lunik* zundak izan ziren gizakiak Ilargian jarritako lehen **astrontziak**.
 - Sobietar Batasunaren *Lunik* zundak izan ziren gizakiak Ilargian jarritako lehen **espazio-ontziak**.
 - Komunera botatzen ditugun hondakin batzuek **atasko** larriak eragiten dituzte hirietako saneamendu sistemetan.
 - Komunera botatzen ditugun hondakin batzuek **buxatze** larriak eragiten dituzte hirietako saneamendu sistemetan.
 - Hautagaiek nortasun agiria, arkatza eta **atxengia** eraman beharko dituzte azterketara.
 - Hautagaiek nortasun agiria, arkatza eta **borragoma** eraman beharko dituzte azterketara.
 - Baserría eraberritu duten arren, **ateburuan** XVII. mendekoa dela jartzen du.
 - Baserría eraberritu duten arren, **ataburuan** XVII. mendekoa dela jartzen du.
 - Anaitasunak ondo eutsi zion tolosarren **atakadari**, eta golik jaso gabe bukatu ahal izan zuen partida.
 - Anaitasunak ongi eutsi zion tolosarren **erasoari**, eta golik jaso gabe bukatu ahal izan zuen partida.
 - Nafarroako Berdintasunerako Institutukoek salatu dute Nafarroako Foru Aldundian egindako bileran ez dituztela **atenditu**.
 - Nafarroako Berdintasunerako Institutukoek salatu dute Nafarroako Foru Aldundian egindako bileran ez dietela **jaramonik egin**.
 - Asunak** Euskal Herriko sendabelar onuragarrienetakoak dira: oso eraginkorrak dira anemiaren aurka, eta odolean dagoen azukre kopurua murrizteko ere balio dute.
 - Asuinak** Euskal Herriko sendabelar onuragarrienetakoak dira: oso eraginkorrak dira anemiaren aurka, eta odolean dagoen azukre kopurua murrizteko ere balio dute.


IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



11. a) Zaurian **atitxatuz** gero, infektatu egingo zaizu.
b) Zaurian **zirikatuz** gero, infektatu egingo zaizu.
12. a) Euskararen eguna zela eta, **atxakia** ederra izan genuen sekulako jaiaz gozatzeko.
b) Euskararen eguna zela eta, **aitzakia** ederra izan genuen sekulako jaiaz gozatzeko.

2. Osatu esaldiak zerrendako aditzekin:



1. COVID 19-ak eragindako itxialdiaren ostean, turistak erakartzeko beste aukera batzuk _____ nahi ditu Jaurlaritzak.
2. EHuko Gobernu Kontseilu berria _____ da, otsailaren 20an Klaustroan egindako hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera.
3. Euskararen tituluak _____ eta Europako mailekin parekatzeko dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak duela urte batzuk.
4. EHuko, Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuko eta Ikerbasque Zientziaren Euskal Fundazioko ikertzaileek gibel-giltzurrunetako gaixotasun polikistikokoak tratatzeko sendagai berriak _____ dituzte.
5. Udalak bertan behera utziko ditu uztaileko udalekuak. Hala ere, doako aisialdi jarduera puntualak antolatzea aztertzen ari da, osasun eta segurtasun neurriak _____ ahal badira.
6. Plastikoaren erabilerak dakartzan ondorioez _____ behar du jendeak arazoari behar bezalako garrantzia emateko eta horri aurre egiteko konponbideak bilatu ahal izateko.
7. COVID-19aren inguruan hainbat aholku eman dituzte. Horietako bat begiak, sudurra eta ahoa ukitzea _____ behar dela.
8. Udalak herriko gobernuaren webgunearen bitartez edozein motatako eskaerak, idazkien aurkezpenak edo bestelako komunikazio bideak egiteko aukera _____ du, egun osoan zehar eta asteko egun guztietan.
9. Egungo hiperkonektibitateak _____ egiten ditu segurtasun publikoaren ahulezietako batzuk, eta, ondorioz, hobeto babestu behar dira sareak eta sistemak, baita herritarren eskubide digitalak ere.
10. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-diskriminaziorik _____.

3. Erlatiboa ez da berdin zehar galdera

Zehar galdera erabili beharreko zenbait perpausetan erlatiboa erabiltzen da erdaren eraginez. Zenbaitetan, gainera, erabilera oker horren erruz esan nahi ez duguna esaten dugu. Adibidez, bi esaldi hauek ez dute esanahi bera:

Esadazu nahi duzuna. (= Esadazu nahi duzun *hori/gauza bat...*)

ez da berdin

Esadazu zer nahi duzun. (= Zer nahi duzu?, esadazu.)

Beheko esaldiotan gaizki erabili dugu erlatiboa. Zuzenduko dituzu?

–Ezetz asmatu oparitu didatena!

–Pentsa ezazu jango duzuna.

–Irakasleak esango dit egin behar dudana.

–Lagunek kontatuko dizute ikusi dutena.

–Ez dakigu gertatu zaiona.

–Gurasoek agindu diote egin behar duena.

–Ezetz jakin egin dudana!

–Ez dut ongi ulertu egin behar dena.

–Alaznek ez daki egin behar dena.

–Ahaztu egin zaio egin behar duena.

Soluzioak109

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

- I. 1. a 4. b 7. a 10. a
 2. b 5. b 8. b 11. b
 3. a 6. b 9. b 12. b

2. 1. COVID 19-ak eragindako itxialdiaren ostean, turistak erakartzeko beste aukera batzuk **baliatu** nahi ditu Jaurlaritzak.
2. EHUko Gobernu Kontseilu berria **eratu** da, otsailaren 20an Klaustroan egindako hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera.
3. Euskararen tituluak **baliozkotu** eta Europako mailekin parekatzeko dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak duela urte batzuk.
4. EHUko, Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuko eta Ikerbasque Zientziaren Euskal Fundazioko ikertzaileek gibel-giltzurrunetako gaixotasun polikistikoak tratatzeko sendagai berriak **garatu** dituzte.
5. Udalak bertan behera utziko ditu uztaileko udalekuak. Hala ere, doako aisialdi jarduera puntualak antolatzea aztertzen ari da, osasun eta segurtasun neurriak **bermatu** ahal badira.
6. Plastikoen erabilerak dakartzan ondorioez **jabetu** behar du jendeak arazoari behar bezalako garrantzia emateko eta horri aurre egiteko konponbideak bilatu ahal izateko.
7. COVID-19aren inguruan hainbat aholku eman dituzte. Horietako bat begiak, sudurra eta ahoa ukitzea **ekidin** behar dela.
8. Udalak herriko gobernuaren webgunearen bitartez edozein motatako eskaerak, idazkien aurkezpenak edo bestelako komunikazio bideak egiteko aukera **ahalbidetu** du, egun osoan zehar eta asteko egun guztietan.
9. Egungo hiperkonektibitateak **areagotu** egiten ditu segurtasun publikoaren ahulezietako batzuk, eta, ondorioz, hobeto babestu behar dira sareak eta sistemak, baita herritarren eskubide digitalak ere.
10. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdina direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-diskriminaziorik **gailendu**.
3. –Ezetz asmatu zer oparitu didaten!
 –Pentsa ezazu zer jango duzun.
 –Irakasleak esango dit zer egin behar duan.
 –Lagunek kontatuko dizute zer ikusi duten.
 –Ez dakigu zer gertatu zaion.
 –Gurasoek agindu diote zer egin behar duen.
 –Ezetz jakin zer egin duan!
 –Ez dut ongi ulertu zer egin behar den.
 –Alaznek ez daki zer egin behar den.
 –Ahaztu egin zaio zer egin behar duen.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Kaixetak

NEREA ARRIEN

IDAZLEA



Uda hasieran jartzen zituzten. Zuri-gorriak, zuri-urdiak... futbolarien kamiseten antzera, zerbait babesten zutela iruditzen zitzaidan. Uda, akaso. Beraneanteen irudia, beharbada. Gauza da, malekoi parean genuela gurea. Aurrean iltzatzen zuen amak eguzkitakoa, konkistatzaile baten fundamentu berberaz. Bertan ematen genuen goiza, bertan arratsaldea. Toalla gainean eguzkiaren bidea egiten genuen eta, seiak aldera, amak alde egiten zuenean, ahizpak gobernatzen zituen kaixetako giltzak. «Euri antza dauka, laster etxera», esaten zuen amak joan baino lehen. Baietz erantzuten genion, euriak harrapatuko ez gintuela jakitun. Geroago, euriak ezinbestean bustiko gintuen eta heldu bilakatuko ginen, baina orduan, oraindik, gure gorputz meheek erraz saihesten zituzten tantak. Erraz ahazten genituen otorduak, bainujantzi umelak, bizi beharra.

Arratsalde bat gogoratzen dut argitasun bereziz. Enbata arratsalde bat: traganarrua irlaren atzean, potinak dindilidandala jelatina-uretan eta tximistak erruz harrizko kokodrilo-irlaren kontra. Enbatak beti ekarri du hondamendia kostaldeko herrietara; tristura udatiarren aldartera. Baina niri, euriak baino hai-zeak beldurtzen ninduen gehiago. Nire gorputz txikia hegaz aterako zelakoan

edo... auskalo! Gauza da, kaixetara sartu nintzela babes bila. Salbu sentitzen nintzen salabardo eta krema artean, kresalak puztutako egurren espazioan. Ahizpa nagusiaren alboan baino seguruago, mila bider. Haren ahotsa entzun nuen nire bila, eta atea irekitzen saiatzean, kisketa izorratu eta preso geratu nintzen. Illeko urkila erabiliz, ortografia akatsekin tatuatu nuen nire beldurra kaixetaren atean. «Z.O.Z», idatzi nuen, eskuan zipipaza izango banu bezala. Sekula ez dut lotsarik sentitu akats haiengatik, udaz uda kaixetako atean ikusi dudana beldur hura baino ez baita izan. Ekaineko egun hartan, zortzi urteko neskato batek imajinatu zituenak: marea biziak kaixeta itsas zabalera eramaten, heroinazaleek egur azpietan botatzen zituzten xiringak uretan flotatzen... Izu hura txertatu zitzaidan garun primitiboenean, *Nivea* eta gatzitutako egurraren usainarekin batera. Gauza bat ikasi nuen egun hartan, halabarrez: askatasun ezak edozein marearen menean uzten gaituela. San Pedro bueltan izan zen hori, eta ez nintzen kaixetara hurreratu irailaren amaiera arte. Kaixetak hondartzatik kendu baino lehen, etxetxo zuri-gorriari agur ez esatea koldarra iruditu zitzaidalako egin nuen, beldurrari aurre egiteko gai izango nintzen jakin gabe. Pipa janean eseri nintzen –oraingoan, atea parez pare irekita– udazkenak hustutako hondartza begiratzer. Bazeukan huts horrek zerbait ederra, zerbait poetikoa. Kaixeten

teilatutik erortzen zen istilak, gure uda osteko malkoen fluidotasuna. Oraindik, ez nekien huts horretan pandemia bat egon zitekeela. Oraindik, beldur txikiak baino ez ninduten ikaritzen.

Urte asko igaro dira ordutik hona. Aspaldi ez dituzte kaixetak hondartzan jartzen. Denbora gehiegi, euriak bustitzen nauela, pipak jaten ez ditudala, amak konkistatzaile sena galdu duela. Kipula baten modura bildu dizkidate ume-tako oroitzapenak ondoren etorri diren eginbeharrek. Baina aurtan, apiril partean, hormigoizko habean artean preso sentitu naizenean, teinka egin dit garun primitibotik neokortexera doan txikotak. Eta berriz sentitu dut izua, berriz usaindu *Nivea* eta gatzitutako egurra.

Kaixeta barrua izan da konfinamendua.


Marea igotzen sentitu dut, itsasgora zazpigarren pisuan. Urak eraman du kaleetako bizia. «Alokairuan», «Eskualdatzen dugu» kartelak dingilizka utziz, itsas-biziarekin joan dira denda txiki-tako trapu, ukendu eta hilaren azkenak. Lanpasaren azpian utzi dizkigu birusez betetako xiringak, pandemiak, hilak. Baina aitortzen dut, korrontearen kontra igeri egiten duen arrainaren lotsaz, San Pedro egun hartan ez bezala, kisketa trabatzea erregutu dudala. Bazeukatelako pandemiako kaleek zerbait ederra, zerbait poetikoa, hondartza hustu haien antzera. Kaixeten teilatutik erortzen zen istilaren kadentziak denbora geldituko balu bezala. ■

Cohousing

Bizikidetzari esanahi betea eman nahi dion etxebizitza-eredua

UNAI BREA
KAZETARIA

Gurean ibilbide laburra du etxebizitza kolaboratibo edo *cohousing* delakoak, orain dela mende erdi inguru Danimarkan sortutako mugimenduak. Hain laburra, ezen Euskal Herrian dauden mota horretako proiektuetatik bat ere ez den oraindik gauzatu (nahiz eta baieztapen horrek ñabarduraren bat edo beste merezi duen). Edonola, eta kopurua oraindik txikia izanagatik, azken bizpahiru urteetan nabarmen ugairitu dira etxebizitza kolaboratiboko egitasmoak Euskal Autonomia Erkidegoan. Horien sustatzaileek azpimarratzen dute ereduak abantaila asko eskaintzen dituela baina aurrera eramateko oztoporik ez zaiela falta, bistan dena; hain zuzen ere, horietako batzuk arintzen lagundu dezakeen araudia sortzeaz da Eusko Jaurlaritza. Baina, zer da etxebizitza kolaboratiboa?





Argazkia: Dani Blanco / Argia

Cohousing izendapenaren barruan hainbat proiektu mota sar badaiteke ere, orobat esan daiteke etxe batean bizi direnen arteko harremanak eta lankidetzaren areagotzea dela guztien ezaugarri nagusia. Hori lortzeko, etxebizitza kolaboratiboek diseinu jakina izaten dute. Oscar Luciok, Ametsak Sortzen euskal *cohousing* elkartearen presidentea, azaldu digunez, «alde batetik erabiltzaile edo familia bakoitzak bere eremu pribatua du, bestetik gune komunak daude». Bertan bizi direnek gune komun horiek eta zenbait zerbitzu partekatzen dituzte, eta komunitatearen funtzionamenduz elkarrekin hartzen dituzte erabakiak.

Lucioren esanetan, bizikidetzaren komunitarioa ez da «intensitate» berekoa etxebizitza kolaboratibo guztietan, hori ere talde bakoitzak erabakitzea baita. Baina betiere, gutxi-asko, lankidetzaren aritzeko asmoa dago etxebizitza kolaboratiboko proiektu baten muin-muinean. «Espazio pribatuari egotzitako hainbat jardueraren etxeetatik ateratzeko moduak landuko ditugu, maite dugun intimitateari uko egin gabe», irakur daiteke, esate baterako, Donostiako Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa egitasmoaren dekalogoan.

KOMUNITATEA ARDATZ

2016an abiatu zen Abaraska, Gipuzkoako hiriburuan etxebizitza lortzeko zailtasunei aurre egin nahian, baina

harago joateko asmoz. «Kezkatuta gaudede Mendebaldeko gizartearen egungo hirietan bizi garen moduagatik; ez dugu harremanik bizilagunekin, eta guk komunitate baten parte izan nahi dugu», adierazi zuen Ana Revuelta elkartearen kideak 2018an *Argia* aldizkarian argitaratutako erreportaje batean.


«Gaur egun ez gaude elkarrekin bizitzera ohituta, orain dela belaunaldi gutxi normalena zen arren», dio Oscar Luciok; «lehenengo herrietan edo baserrietan nork bere etxea zuen, baina elkarri laguntzen zioten etengabe; hura, izatez, *cohousinga* zen».

Belaunaldi berriak beste modu batera bizitzera ohitu gara, eta horregatik ez da beti erraza izaten eredu kolaboratiboa batean bizitzeko erabakia hartzea, Ametsak Sortzeneko presidenteari iritziz. «Ezer baino lehen, aldaketa egin beharra dago norberaren baitan, mundu guztia ez da prest egoten komunitatea ardatz duen bizimodurako; etxebizitza kolaboratiboak aurrera ateratzeko proiektuetan ibiltzen direnek eskarmentua izaten dute asoziazionismoan, eta ez da kasualitatea». Lucio dabilen proiektuan, esate baterako, garrantzia ematen diote taldearen barruko harremanak lantzeari, eta trebakuntza jaso dute komunikazio ez-bortitza eta gatazken konponbidea jorratzeko.

BAKARKA BAINO HOBETO

Cohousing Spain plataforma duela bi urte eratu zen, Espainiako Estatuan etxe kolaboratiboak sortzeko asmoa duten proiektuei babes emateko asmoz. Haren zuzendariak, Cristina Cuesta nafarrak, ereduaren abantailak aipatu dizkigu: «Pertsonen ikuspuntutik, frogatuta dago harreman sozialak eta lagunartea eskaintzen dituen komunitate batean bizitzeak bizi-kalitatea hobetzen duela, segurtasun-sentsazioa ematen duela, babes-sareak sortzen dituela, eta, gainera, ezagutza partekatzeak, gaitasunak garatzeko eta baloreak sendotzeko balio duela».

Osasunari ere mesede egiten dio etxebizitza kolaboratibo batean bizitzeak, Cuestaren berbetan, «bakardadeari aurre egiten lagundu, depresioa prebenitu eta zahartze aktiboa sustatzen baitu». *Cohousing* Spaineko zuzendariak ez du alferrik aipatu zahartzea; kontuan hartu beharra dago etxe kolaboratiboak erabiltzeko proiektu asko adineko jendeak abiarazten dituela, bizitzaren azken urteak igarotzeko ohiko aukeretatik aparte (egoitza, seme-alaben etxea...) bestelako bideen bila. *Cohousing* kontzeptua, maiz, mota horretako egitasmoekin (*senior* esaten zaie) lotzen da, Oscar Luciok argitu duenez. Espainiako Estatuan, behinik behin, halakoak izan dira etxe kolaboratibo aitzindariak, eta garai batean ia bakarrak.



Azken urteetan, ordea, eta Euskal Herrian behintzat, ugarituz doaz jende gazteak sustatutako egitasmoak, baita hainbat belaunaldi uztartzen dituztenak ere. Cristina Cuestak dioenez, arrazoi bi daude horretarako: batetik, erabiltzaileen soslaia gero eta heterogeneoagoak izateko nahia; eta bestetik, honezkero ibilbide luzetxoak egin duten *senior* proiektu batzuei gertatutakoa saihesteko beharra. Honela azaldu du Cuestak: «Sortzaileak batera zaharkitzearen ondorioz, egoitza geriatriko bihurtu dira, asistentzia-eredu tradizionalen antzekoak. Horrek ez du errazten proiektuan kide gazteagoak sartzea, eta ondorioz, komunitate horien epe luzeko jasagarritasuna bermatzea».

ERABILTZAILE, BAINA EZ JABE

Cristina Cuestaren esanetan, norberaren ongizateari egin diezaiokeen mesedeaz gain, etxebizitzaren arloan ere onurak ditu *cobousingak*, hainbat arrazoiengatik. Batetik, pertsona bakoitzaren beharrianetara egokitutako etxebizitza-eskaintza hobetzen duelako. Bestetik, higiezinak errekuperatzeko eta landa-eremuaren despulazioari aurre egiteko formula interesgarria izan daitekeelako. Eta hirugarrenik, eredu ez-espekulatiboa delako.

Ezerk ez dio eragozten pertsona-talde bati orain arte aipatu ditugun ildoei jarraituz, besterik gabe, elkarrekin bizitzen hastea, eta seguruenik Euskal Herrian bada adibiderik, horri buruzko inolako

daturik ez badago ere. «Azken batean, etxebizitza partekatzea ez da legez kanpokoak Espainian», dio Oscar Luciok. Haatik, etxebizitza kolaboratibo «kanonikoak» (nolabait esatearren) ondo araututako proiektuen inguruan gorpuzten dira. Forma juridikoa kooperatiba edo irabazi asmorik gabeko elkarteak izan daiteke, baina zabalduago dago lehenbizikoa. Bata zein bestea dela, taldea bera da eraikinen jabea hura eraiki ondoren ere (ohiko etxebizitza-kooperatibak, aldiz, eraikuntza bukatutakoan desegiten dira, jabetza banakoen esku uzteko), eta erabilera-eskubidea lagatzen diote kide edo bazkideei. Abaraska proiektuak azaltzen duenez, erabilera-lagapena oso zabaldua dago beste herrialde batzuetan, lehenbiziko *cobousing* egitasmoen habia izan zen Danimarkan adibidez, eta «bidea ixten dio espekulazioari, jabetza beharrean erabilera jartzen baita balioan».



EZ DAGO DENEN ESKU

Aipatu dugunez, kultura komunitarioa ahuldu eta individualismoa gailendu izana da etxebizitza kolaboratiboa zabalteko oztopoetako bat, baina badira prosaikoagoak. Hitz lauz esanda, edonork ezin die aurre egin halako proiektuek dakartzaten gastuei. Oscar Luciok azaldu digunez, «kooperatiban sartzeko hasierako ekarpena egin behar da, kapital sozialerako; bankuek finantzazio osoaren % 80 inguru eman ohi dute, eta gainerakoa bazkideek ipini behar dute».

Miloi bat euro behar bada proiektu bat abian jartzeko, eta kooperatiban bost bazkide badaude, bakoitzak 40.000 euro jarri beharko ditu hasieran. «Horri, gero, hileroko kanon bat gehitu behar zaio», dio Luciok, «ohiko gastuei aurre egiteko». Kanon hori alokairu libre arrunt bat baino merkeagoa izaten da.

Benetako adibide bat: Abaraskako bazkideek 18.500 euroko ekarpena egin behar dute eraikinen erabilera-eskubidea izateko, eta 450 euroko kuota ordaindu. Kopuruak askoz apalagoak dira Luciok emandako hipotesian baino, baina, hala ere, Abaraskako kideek aitortzen dute «planteatzen ari garen eredu ez dela jende guztiarentzat bideragarria».

Zailtasunak zailtasun, urte gutxian gorakada nabarmena izan du *cobousingak* Euskal Herrian. Ametsak Sortzen elkarrekin, berbarako, 2018ko urtarrilean sortu zuten gaiari buruzko informazio faltaz kezka zuten lagun batzuek, eta gaur egun 73 bazkide ditu Oscar Lucio presidentearen esanetan, «baina horietako batzuek proiektu oso bat ordezkatzeko dute; benetan, 200 lagunetik gorako kolektiboa dago elkarteetan». Eusko Jaurlaritzako iturrien arabera, duela lau urte inguru proiektu bakarra zegoen EAEn, eta gaur egun 30 baino gehiago dira. Datuok ez dira zeharo fidagarriak, ez baitago errolda zehatzik, baina ederto adierazten dute zer-nolako hazkundeak izan duten gurean *cobousing* egitasmoek.



ETXEBIZITZA KOLABORATIBOA SUSTATZEKO ARAUDI BERRIA

Hazkunde hori ez da nahikoa izan, hala ere, proiektu horietako bakar bat ere gauzatu eta benetan funtzionatzen has-teko. Momentuz horixe baino ez dira: proiektuak. Dagoeneko aipatu ditugun zailtasunei legedia lausoa izatea gehitu behar zaie, etxebizitza kolaboratiboak sustatu nahi dituztenek salatzen dutenez. Bereziki, udalek proiektu kolaboratiboei trabak jarri ohi dizkietela diote, euren eredia lurzoruari buruzko legediarekin nola uztartu guztiz argi ez izateagatik.

Hainbat kooperatiba eta elkarterekin hitz egin ostean, iazko abenduan, EH Bilduk gaiari buruzko legez besteko proposamena aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean. Azkenik, erdibideko zuzenketa bat onartu zen, aho batez, Jaurlaritzari eskatzen ziona etxebizitza kolaboratiboa sustatzeko (hura garatzeko lege-esparru bat finkatu zen, besteak beste), eta udalei halakoak aurrera ateratzen laguntzeko.

Mario Yoldi Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariak adierazi digunez, abenduan legez besteko proposamena onartu orduko gobernuak urtebete inguru zeraman lanean alokairua «hainbat molde eta formatan» sustatzeko agindu bat prestatzen, eta horren barruan, berrikuntza modura, *cohousing*-a bultzatzeko neurriak ere badaude. Yoldiren esanetan, lehenbailehen argitaratu nahi dute agindu hori, hauteskunde ostean betiere.

Etxebizitza Plangintzaren zuzendariak azaldu duenez, «Jaurlaritzak uste du etxebizitza kolaboratiboa figurarik erakargarrienetako bat dela alokairu ertainetarako, hau da, hilean 500 euro inguru ordain ditzaketentzat». Hori bai, Yoldik argi utzi du Gobernuak ezin diola proiektu zehatz bati, besterik gabe, lursail publiko bat eman, «ez dohainik ez diru trukean», legeak debekatzen baitio. Behartuta daude lagapenak lehiaketa publiko bidez egitera, eta, izan ere, martxan dago modu horretan kudeatu den proiektu pilotu bat, Donostian. «Txomin Enea inguruko sail batean babes ofizialeko 117 etxebizitza eraikitzeko asmoa genuen, eta sail horrekin abiatu dugu lehen proba pilotua». Lehiaketa antolatu zuten, eta 300 bazkide inguru dituen Bizikide izeneko kooperatiba batek irabazi zuen, iazko irailean. Orain, hari dagokio 117 etxebizitzak eraiki eta bere kideei haien erabilera-eskubidea lagatzea. Prezio txiki baten truke (6.000 euro), Jaurlaritzak azalera-eskubidearen pean utzi dio lursaila kooperatibari 75 urterako, eta denbora hori igarotakoan orubea gobernuaren eskuetara itzuliko da.

«Nolanahi ere, efizientziagatik, lursail handiekin lan egin ohi du Jaurlaritzak», azpimarratu du Mario Yoldik. Etxebizitza kolaboratiboa sortzeko proiektuak ez direnez hain handiak izaten, Lakuak nekez aterako du lehiaketara haien beharrianetara egokitzen den tamainako

sailik. Horregatik, bestelako babes emango diete: «Proiektuak gizarte zibilak berak sustatzea nahi dugu, eta guk bi erataro lagunduko diegu». Alde bategatik, Eusko Jaurlaritzak mailegu-sistema berri bat adostu finantza-entitateekin, mota horretako egitasmoei laguntzeko. «Epe luzeko maileguak egongo dira; guk ez dugu dirulaguntzarik emango horietarako, baina adi egongo gara finantzarakundeek adostutakoa betetzen dutela bermatzeko». Bestetik, etxebizitza kolaboratiboko proiektu bat duten kooperatibentzat eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzat dirulaguntza-lerro berria sortuko du Jaurlaritzak.

Azkenik, Yoldik nabarmendu du legearen barruan daudela erabilera-eskubidea lagatzearekin zerikusia duten operazioak, eta zehazkiago, 2015eko etxebizitzaren euskal legeak aurreikusita dituela. Ildo horretan, onartu du zenbaitetan udal txikiak mesfidantza agertzen dutela horrelakoren bat suertatzen zaienean, batez ere landa-eremuan, lurzorua erabilerari eta hirigintzari buruzko arauak urratzeko trikimailuak direlakoan, «baina dena da legezkoa, eta, etorkizunean arazoak izanez gero, jarduketak egin beharko dira malgutasuna sustatzeko, halako operazioak populazio gutxiko eremuetan egitea onuragarria baita denontzat; denok ezin gara bizi Bilbon edo Gasteizen».

ASUN FERNANDEZ
(Egusentia elkartearen kidea):

«*Erakundeetara jotzen dugunean gure ideia oso interesgarria iruditzen zaie, baina ez dute arriskatu nahi*»



Argazkia: Dani Blanco / Argia

Egusentia-Aurora irabazi asmorik gabeko elkarteak 2013an egin zituen lehen urratsak etxebizitza kolaboratibo bat martxan jartzeko, eta horrenbestez, erratzeko beldur handirik gabe esan daiteke EAEko proiekturik zaharrena dela. *Senior* egitasmo bat da, hau da, kide guztiak adinekoak dira (batez beste adina 66 urtekoa da), eta 25 kide ditu, denak Bilbokoak edo inguruko udalerrietakoak. Asun Fernandezek azaldu digu zertan den proiektua.

Orain dela zazpi urte sortu zenuten Egusentia, baina oraindik ez duzue zuen proiektua gauzatzeko eraikinik.

Hala da. Hasiera batean (ni orduan ez nengoen) Bizkaiko edozein udalerritan kokatzea zen asmoa, herri txikiren batean, naturarekin harremanetan... Herrialde osoan ibili ziren, lursailak, etxeak, komentuak eta abar bilatzen. Kontua da geure kabuz eta modu pribatuan lursail bat erostea eta bertan eraikitzea garestiegia dela, gure ahalmenetik kanpo dagoela. Hori dela eta, pentsatu genuen administrazioak lagundutako proiektua izan beharko zela. Bestalde, naturarekiko harremanetan bizitzeko hasierako ametsa baztertu eta hiriguneari begira jarri ginen, hainbat baliabide eta zerbitzu errazago eskuratuko genituelakoan. Gure asmoa, orain, etxea Bilbon edo inguruan izatea da.

Hori ere ez da erraza, ezta?

Ez. Administrazioa jo genuen laguntza eske, eta lehenik eta behin etxebizitza kolaboratiboa zer den azaldu genien. Kostatu zitzaigun ulertaraztea, egia esan. Baina uste dut zazpi urte igaro ostean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako Sailburuordetzak ondo ezagutzen duela ereduak. Orduan, zertan da gurea? Bada, hemen eraikitzea garestiegia da, eta administrazioak lursail bat utziko baligu ere, gure ekonomiatik kanpo geratuko litzateke. Azken finean, uste dugu politika publikoak sustatu beharko lukeela etxebizitza-eredu hori, eta eraikinen bat erabiltzeko eskubidea laga beharko ligukeela, adibidez, 75 urtez. Hala ere, erakundeetara jotzen dugunean, oso interesgarria iruditzen zaie gure ideia, baina ez dute arriskatu nahi, edo ez dakit zer gertatzen zaien.

Eraikinik oraindik ez, baina ondo finkatuta duzue zuen proiektua, ezta? Bizikidetzaren nolako izango den, esan nahi dut.

Bai, oso ondo, arkitektonikoki zer forma izango duen jakin ez arren. Mota askotako etxe kolaboratiboak daude, baina gurea hiri barrukoa izango da eta apartamentu txikiak izango ditu, 40 metro koadro ingurukoak. Oso ondo zehaztuta daukagu gure komunitan

zer egingo den, jarduerak, bizikidetzaren, elkarren zaintza eta abar. Hainbat motatako aktibitateak egongo dira, norberaren jakituriaren eta trebetasunen arabera, eta abiapuntu horrekin denbora-bankua antolatuko dugu: batek tai-chi eskolak emateko, besteek zineforumak antolatzeko, eta abar. Garai bateko auzoa dugu buruan: bakoitzak bere pribatasuna gordetzen du, baina bizilagunek elkarri laguntzen diote. Beste kontu garrantzitsu bat da herritar izaten jarraitu nahi dugula, hau da, inguruarekin harremanetan egon. Gure gune komunak auzokideentzat zabalik izango ditugu.

Eta etxearen egitura bera? Nolakoak izango dira gure komunak?

Ez dugu askorik behar, hainbat gauzatarako erabil baitaitezke: sukalde handi bat, txokoa, komunitatea sendotzeko garrantzitsua baita astean otordu bat edo bi elkarrekin egitea. Europako etxe kolaboratibo batzuetan behartuta daude egunero elkarrekin afaltzera, baina uste dugu gure inguruan hori gehiegizkoa dela. Bestalde, gure pribatuetan ez da garbigailurik egongo, ez zaigu beharrezkoa iruditzen, nahikoa baita txoko batean batzuk edukitzea. Energiaren aldetik, berriz, ahalik eta eraikin pasiboena izan dadin saiaturiko gara, eta energia berriztagarritz hornituko dugu. ■

IVAP-IZOren itzultzaile automatiko neuronal juridiko-administratiboa

MANU ARRASATE

IZOKO ZERBITZUBURUA (IVAP)

Iazko urte-bukaeratik hasita, erabat aldatu da itzultzaile automatikoen paisajea euskal munduan. Lehen ere baziren itzultzaile automatikoak euskaraz, baina ez hain lagungarriak. Hona hemen, erabilgarri diren itzultzaile automatiko neuronalen inguruko galdera-erantzun batzuk, arlo honetako zenbait zalantza argitzeko lagungarri izan daitezkeelakoan.

ZEINTZUK DIRA GAUR EGUN ITZULTZAILE AUTOMATIKO NEURONAL EZAGUNENAK?



- Herritarrentzat irekia da, eta erabil daiteke erregistratu gabe.
- Itzulpenerako hitz-muga: 79/100 hitz.
- Erregistratuz gero, aukera gehiago ditu erabiltzaileak: adibidez, hitz-kopuru handiagoa itzul dezake eta dokumentu formatudunak itzultzeko aukera eskaintzen du.
- Hizkuntzak automatikoki detektatzen ditu. Hizkuntza-konbinazioak: euskara + gaztelania + galegoa + katalana + ingelesa.



- Hizkuntza-parea hautatu behar da aurretiaz: ES-EU edo EU-ES
Orain, Fr-EU + EU-Fr konbinazioak ere eskaintzen ditu BETA bertsioan.
- Era askotako corpusak eta testuak jaso ditu tresna honek, eta administrazio-arloko testu ugari ere bai.
- Hitz-kopuruen muga: 4.000 karaktere, testu formatuan.



- Publikoa da, herritar guztientzat irekia.
- Erabiltzaileak ebaluatu egin dezake emaitza.
- Erabiltzaileak zuzenketak proposatu ditzake.
- Itzulpen bakoitzerako erabilera-muga: 8/1.000 hitz.
- Hizkuntzak automatikoki detektatzen ditu: ES-EU edo EU-ES.
- Itzulpen-tresna hau elikatzeko eta irakasteko orduan, hedabideetako corpusak eta testuak erabili dira hein handi batean.

**IVAP-IZOren
Itzultzaile automatiko
neuronal juridiko-administratiboa**

<https://www.ivap.ejgv.euskalsarea.eus/itzuli/>

- Administrazio langileentzako bakarrik dago irekita, Euskalsarea plataformaren bitartez.
- Hizkuntza-pareak ditu: ES-EU + EU-ES
- Hizkuntzak aurretiaz hautatu behar ditu erabiltzaileak; beraz, aukeratu egin behar da jatorrizko hizkuntza zein den.
- Ez dauka hitz-mugarik. Lanean ari dira laster Word eta odt dokumentu osoak ere itzuli ahal izateko.
- Chrome erabilia, badirudi errazago dabilela aplikazioa.

Hurrengo lerroetan, sakonki aztertuko dugu itzultzaile automatiko neuronal juridiko-administratiboa.

1 ZER DAKAR BERRI ITZULTZAILE AUTOMATIKO NEURONAL JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAK?

- IZOk azken 20 urteotan bildutako itzulpen-memoriak ditu oinarri.
- Barnean beste corpus asko ere baditu, eta era askotako dokumentuak.
- Berezitasun gisa, IZOk itzulitako 10 milioi segmentu ditu barnean, euskaraz eta gaztelaniaz parekatuta.
- Barnean ditu azken urteotan itzulitako EAEko legeak, BOEkoak, EHAAn argitaratutakoak eta Administrazio arloko era guztietako testuak.

2 NOR ERABIL DEZAKE ITZULTZAILE NEURONAL JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAK?

- Oraingoz, tresna hau **Administrazioko langileei** eskaini zaie, euskaraz eta gaztelaniaz egin beharreko eguneroko jardunean laguntzeko.
- Aplikazio honetara iristeko **euskal administrazioetan erabiltzen den** plataforma bat erabili behar da: **Euskalsarea**.
- Euskal administrazioetan lanean jardunda, Euskalsarera konektatzeko arazorik ez da izaten, baina, eragozpenen bat izanez gero, informatika-teknikariekin jarri behar da harremanetan, edo arlo horretaz arduratzen diren erakundeekin (Bizkaian, *CAU-Lantik*; Gipuzkoan, *IZFE*; Araban, *Arabako Kalkulu Gunea*).

3 ZER EKARRIKO DIO TRESNA HONEK EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN ARTEKO HIZKUNTZA-BERDINTASUNARI?

Langileek, itzultzaile automatiko neuronal juridiko administrazioari esker, **denbora aurreztuko** dute aldi berean eus-

karaz eta gaztelaniaz lan egiterakoan, eta, orri zuri hutsaren ordean, berehala idatzita aurkituko dute oinarriko egitura bat; **betiere berrikusi**, osatu, moldatu, zuzendu eta hobetu beharko den egitura bat.

4 ZEIN JAKINTZA-MAILA BEHAR DA ITZULTZAILE AUTOMATIKO NEURONAL JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAK ERABILTZEKO?

Euskaraz eta gaztelaniaz **maila egokia izatea** ezinbestekoa da, tresna honek eskaintzen dituen testuak baloratu eta zuzendu ahal izateko. **Arduraz** eta erantzukizunez erabili behar da, itzultzaile juridiko-administratiboa ez baita hiztunen ordeko. Erabiltzaileak berak izan behar du **testuaren sortzaile**, eta, aldi berean, **arduradun**. Hiztuna ahaldundu egin behar da. Testugileak orokorrean gaztelaniaz izaten dituen ardura eta arreta berberak jarri behar ditu euskarazko testuetan ere.

Oharra:

Ohar garrantzitsuak

> Tresna hau lanean laguntzeko besterik ez da, eta bere emaitzak beti berrikusi eta zuzendu behar ditu euskaraz eta gaztelaniaz testuak sortzen eta itzultzen hizkuntza-gatasun nahikoa duen pertsona batek. IVAPek ez du erantzukizunik izango tresna hau modu desegokian erabiltza sortutako testu akastunek ekarritaketen ondorio juridikoetan.

5 KOMENI DA ERABILTZAILEAK ITZULTZAILE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAZ ITZULITAKO TESTUA BERRIKUSTEA?

Komenigarria, ez... ezinbestekoa eta behar-beharrezkoa da testua ondo aztertzea eta zuzentzea. Arestian esan bezala, testu-egileak berak arduratu behar du, normalean, horretaz.

Itzultzaile juridiko-administratiboa erabiltzerakoan esteka bat agertuko da jarraibide txiki batzuekin: <https://www.ivap.euskadi.eus/itzultzaile-automatiko-neuronal/216-azizo/eu/>

Itzultzaile juridiko-administratiboa hau edo beste itzultzaile automatiko batzuk erabiltzerakoan kontuan izan beharrekoak:

- a. **Jatorrizko testua txukundu** behar da, emaitza ere hobea izan dadin: esaldi laburrak, osoak, puntuazio egokia, akats ortografikorik gabe eta abar.
- b. Makinak asko lagundu dezake, baina edozein momentutan **interpretazio okerren bat** ere egin dezake. Beraz, testu osoak irakurri behar dira arretaz (jatorrizkoa eta xede-testua, biak).
- c. **Desegokia da** Itzultzaile juridiko-administratiboa **hiztegi modura erabiltzea**. Hitz polisemikoetan, esaterako, kontesturik gabe, esanahietako edozein hautatzen du. Beraz, baliteke asmatzea... edo ez!
- d. Terminologian, oro har, baliteke testuaren osotasuna kontuan ez hartzea, eta **inkoherezia terminologikoak** agertzea.
- e. Ortografian, baliteke **azken arauak** eguneratu gabe egotea. Adibidez, «dirulaguntza» idatzi beharrean, «dirulaguntza» idatzi dezake oraindik.
- f. **Lege-testuen aipuak** eta hitzez hitzeko aipamenak, kaxkax artekoak, ez ditu oraingoz jatorrizko testutik hitzez hitz ekartzen (sic). Gauza bera gerta liteke legeen izenburuak aipatzerakoan ere.
- g. Itzultzaile juridiko-administratiboarentzat zaila da, oraingoz, xede-hizkuntzara eramatea ikuspuntu-moldaketak, egokitzapenak, **lokalizazioak**... Hemen adibide bat: La palabra «innovación» proviene del latín / «Berrikuntza» hitza latinetik dator.

6 IZOK EDO ITZULTZAILE PROFESIONALEK BERRIKUSI BEHAR DITUZTE ITZULTZAILE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAZ EGINDAKO ITZULPENAK?

Ez; erabiltzaile espezializatu zenbaiten lana salbuespen izan liteke; baina, oro har, erabiltzailearen lehen urratsa (eta, askotan, bakarra) itzultzaile juridiko-administratiboa erabiltzea bada, testu

elebidun horrek ez dio asko laguntzen itzultzaileari. Zergatik? Hezur-haragizko itzultzaileak ere erabil dezakeelako itzulpen-tresna hori, hala erabakiz gero. Itzulpengintzaren lan-prozedura aldatuz gero, itzultzaileen altxorrik preziatuena galduko genuke bidean: urte askoan itzulpen-memoretan metatutako jakintza. Itzultzen diren testu guztiak segmentuka (esaldika) antolatzen dira, eta itzulpengintzaren oinarri eta abiapuntu izaten da itzulpen-memoria gaur egungo prozeduran. Itzultzaileok jarraitu behar dugu memoriak elikatzen, memoria horiek izango baitira azken batean itzultzaile automatikoaren elikagai.

7 ZEIN DA, BADA, ITZULTZAILEAREN PROZEDURA?

Itzultzaile profesionalak urrats garrantzitsuak egiten ditu testua itzultzen hasi aurretik. Lehendabizikoa da testuaren **aurrekariak aztertzea**: testuingurua bera, beste testu batzuekin izan dezakeen lotura, eruedetan oinarritutakoa den ala ez begiratzea, arloari dagokion terminologia lantzea eta, oro har, eragina izan dezaketen datu guztiak ondo aztertzea.

Bigarrena, lehen aipatu ditugun **itzulpen-memoriak erabiltzea**. Itzultzaile juridiko-administratiboak tresna elikatze-ko erabili ziren itzulpen-memoriak dira, IZOren kasuan behintzat, abiapuntu nagusi.

Plugin baten bitartez, hutsik geratu diren esaldietarako erabiliko da itzultzaile juridiko-administratiboak eskaintzen duen proposamena, eta orduan erabiliko da, baldin eta itzultzaileak bide hori erabiltzeari egoki irizten badio. Itzultzaile juridiko-administratiboak itzulitako esaldi horietan, **postedizioa** egin beharko du itzultzaileak esaldiz esaldi.

Azkenik, testua itzuli eta zuzendu ondoren, **memoretan gordeko** da itzulitako lana, era horretara, itzulpenen altxorra aberatsagoa izan dadin.

8 NOLA ELIKATZEN DA ITZULTZAILE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOIA TRESNA? EZ DA ZUZENEAN ELIKATZEN?

Oraingoz ez da erabiltzailearen ekarpenik jasotzen. IVAP-IZOren itzultzaile juridiko-administratiboak, momentuz, ez dio erabiltzaileari eskainiko iritzia emateko aukera, ez eta Itzultzaile juridiko-administratiboak tresnan bertan testua zuzentzeko ere. IZOen era honetara jokatu dugu:

Batetik, **memoria eguneratzean**, itzultzaile juridiko-administratiboak azkenengoz elikatu zutenetik sortutako segmentuak erantsiko dira, urtean bi aldiz.

Bestetik, lanean ari garenean itzultzaile juridiko-administratiboaren emaitzetan ikusten diren akats eta **jokabide desegokiak** modu estrukturalan **nola zuzendu** daitezkeen aztertuko dugu.

9 ADMINISTRAZIOETAKO GAINERAKO ITZULTZAILEEK ETA LANGILEEK ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKETE IZOREKIN ELKARLANEAN?

Elkarrekin egingo dugu lan. Garrantzitsua da guztiok **irizpide bateratuak** erabiltzea. Itzultzaile juridiko-administratiboak hobetzerakoan eta elikatzerakoan parte hartu dezakete IZOekin batera. Beste arlo batzuetako teknikarien partaidetza ere interesgarria da: euskara-teknikariena edo arlo juridikoetako teknikariena.

10 TESTUETAN AGERTZEN DIREN DATU PERTSONALAK BABESTUTA AL DAUDE?

Bai, erabat babestuta daude itzuli beharreko testuetan ager daitezkeen datu pertsonalak. Horrela jakinarazten da tresnak berak dakarren ohar batean:

Datuen babesa

> Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, jakinarazten dizugu itzultzaile automatikoak egindako itzulpenik ez dela sisteman gordetzen, ezta testu-kutxan sartutako inolako daturik ere.



11 ITZULTZAILE PROFESIONALEK, BERAZ, EZ DUTE LANIK IZANGO ETORKIZUNEAN?

Itzultzaile juridiko-administratiboak betiko etorri da gurera, eta urtetik urtera hobetzen jarraituko du. Tresna horrek asko lagunduko digu lana errazten eta denbora aurrezten, baina beti izango dugu, oraingoz behintzat, itzultzaileon beharria. Administrazioetako langileen **lan-jarduna aldatu** da orokorrean, eta **itzultzaileona ere egokitu** beharko zaio egoera berriari. Itzultzaile profesionalak, gainerako langileekin batera, jarraitu behar dugu hizkuntzaren oinarriak jartzen, ereduak finkatzen, lege-esparruko eta administrazioetako hizkerak sendotzen, terminologia lantzen... Zeregin handia dugu oraindik itzultzaileok hizkuntzen arteko **zubiak eraikitzen** eta zabaltzen. ■

Adimen artifiziala desmitifikatzen (I)

JAVIER MARTINEZ ALDANONDO

CULTURA DE APRENDIZAJE KNOWLEDGE WORKS-EKO BAZKIDEA

javier@kworks.es eta javier.martinez@knoco.com

Inkesta guzti-guztiek diote Adimen Artifiziala (hemendik aurrera, AA) izango dela mundua goitik behera aldatuko duen hurrengo teknologia. Areago, «elektrizitate berria» izenarekin bataiatu dute. Eragin dituen erreakzioak hiru kategoriatan sailkatzen dira:

- **Alarmistak:** ziur daude makinek ordeztuko gaituztela eta egundoko langabezia eragingo dutela, eta, ondorioz, milioika pertsona ogibiderik gabe geratuko direla.
- **Baikorrak:** amets egiten dute teknologia bazter guzti-guztietara iritsiko dela, berehala gainera, eta hori ez dagoela gelditzerik.
- **Errealistak:** ez da hain erraza lanak automatizatzea, eta bateragarritasunaren alde egiten dute, makinek eraginkorrakoak diren eremuetan osatuko gaituztelakoan.

Zer datorkigu? Komeni da zenbait alderdi argitzea, izua gailendu ez dadin.

AAren promesa oso arriskutsua da. Makina adimendunak sortzea, horra AAren asmo handiko helburua. Eta halakoa da ez dago-eta adostasunik adimenduna izatea zer den ebazteko orduan. Nire ustez, adimena da «erabaki onak hartzeko eta azkar ikasteko gaitasuna». Erabaki onak behin eta berriz hartzeko (eta ez zorionez edo kasualitatez), jakintza behar duzu, eta jakintza hori izateko, ezinbestekoa da ikastea. Horregatik, albiste ona da AAren gorakadak jakintzaren eta ikaskuntzaren garaipena berresten duela. Baina adimenak kontzientzia ere eskatzen du: zer egiten ari zaren azaltzeko gai izatea, zergatik egiten duzun horrela eta ez beste modu batean, nola iritsi zinen ondorio horretara, nola egiten diezun mesede edo kalte hirugarrenei edo ingurumenari... Beraz, makina bat adimenduna dela esateko, egin beharreko zereginari buruzko jakintza izan behar du makinak, bai eta modu autonomoan ikasteko eta egiten duenaz jabetzeko gaitasuna ere; ezaugarri horiek guztiak pertsonen bereizgarriak dira.

Egia esan, gaur egun ez dugu makina adimendunik: makina batzuek guk baino hobeto egin ditzakete zenbait zeregin, edo guk egin ezin ditugun gauzak egiteko gai dira; eta horrek balio handia dauka, baina ez da inola ere adimenduna izatea. AAk errealitatearen eremu oso mugatu batean baino ezin ditu erabakiak hartu; alegia, alde zurratik trebatu duten esparruan. Ondorioz, zailtasun handiak ditu, adibidez, bi urteko haur batentzat



oinarrizkoak diren gauzak ikasteko. AAK prozesatzeko gaitasun izugarria du, baina ulertzeko oso gaitasun txikia oraindik.

Automatizazioa ez da fenomeno berria.

Historian zehar, gizakiak berezko izan du aurrerapen teknologikoak garatzen ibiltzea lan astunetatik arintzeko, zeregin desatseginak beste batzuen eskuetan utzita: lehenengo, animaliak erabiliz, eta gero, tresnak asmatuz. Betidanik teknologiak ordeztu izan du gure indar fisikoa, baina orain, lehen aldiz, makinek gure burmuina ordeztearekin mehatxatzen dute, eta horrek urduritu egiten gaitu. XIX. mendeko industria-iraultzan, Ingalaterran, alarma ugari piztu ziren, makinek pertsonak ordezteak eragiten zuen arriskuagatik.

Egia esan, teknologiak ez du inoiz lan-gabeziarik eragin; merkatuak aldarazi ditu gehienbat. Orain, prozesua askoz azkarragoa da, eskala handiagoan gertatzen da eta eragin handiagoa du orain 150 urte baino. Horra desberdintasun bakarrak. Diskurtso katastrofista batek iragartzen du AEBetako lanen %47 ordeztuak izateko arriskuan daudela, eta hori segur aski egia da, baina datu hori osatu gabe dago. Teknologiak ez du enplegurik suntsitzen, aldatu egiten du. Ez dirudi, lan-arloan eta garapen ekonomikoaren arloan, munduak atzera egin duenik XIX. mendearekin alderatuta.

Automatizazio-prozesua geldiezia da.

Gizartearen digitalizazioan ez dago etenik, eta hori maila guztietan gertatzen da: komunikazioan, entretenimenduan, osasunean, lanean, garraioan, merkataritzan, hezkuntzan eta abar. Egiten dugun guztia teknologiaren mende dago, eta pandemian hala egiaztatu dugu. Ezerk ez digu pentsarazten prozesu hori ez dela etengabe bizkortzen ari, eta gure bizitzaren alderdi guztiei eragiten die. Beraz, gure bilakaeran egin beharreko «ohiko» urratsa da AAK makinei giza-

kienaren moduko adimena eman nahi izatea, gai izan daitezen orain arte pertsonak soilik egin ezin zezaketena egiteko. Argi dago asmo hori gauzatu egingo dela, alde batera utzita ea asmo hori moralki zuzena den, posible izango den, alde ala kontra gauden edo eragin positiboa izango duen.

Prozesua ez da berehalakoa. AAKo profeten iragarpenek bide luzea dute egiteko, errealitate bihurtuko badira. Oraindik oso gutxi dakigu burmuinari buruz: ez bagara gai ulertzeko giza adimenak nola funtzionatzen duen, ezin gara presatuta egon hura artifizialki erreproduzitzeko, denbora laburrean asko aurreratu den arren. Puntu honetan gaizki-ulertu bat gertatzen da: makinek guk egin ezin ditugun gauzak egiteak ez du esan nahi adimendunak direnik, ezta zer egiten duten dakitenik ere. AA sistema aurreratuari galdetzen badiozu zergatik egiten duen egiten duena, edo zure negozioa garatzeko aholkua eskatzen badiozu, ezin izango dizu ezer koherenterik erantzun. Bohr-ek zioen bezala, «Zuk ez duzu pentsatzen, logikoa izatera mugatzen zara». Baina, era berean, makina batek zuk egiten duzuna egin badezake, esan nahi du zure lanak ez duela adimen-dosi handiegirik eskatzen.

Makinek guk baino potentzia handiagoa dute informazioa kalkulatu eta biltegitratzeko, eta gero eta alde handiagoa aterako digute. Zeregin horietan ez du zentzurik haiekin lehiatzeak. Zuk makina batek egiten edo egingo duen lana egiten baduzu, arazoak izango dituzu, makinak errentagarriagoak direlako, zuk baino lan gehiago eta hobia egin dezaketelako. Hala ere, oraindik ere, gizakiak zeregin eta lan abstraktuak egiten ditu (zerikusia dutenak sormenarekin, arazoak konpontzearekin, komunikazioarekin eta abarrekin), bai eta makinek egin ezin dituzten eskulanak ere, eta hor du zentzua ahaleginak kontzentratzeak. Horrek

aldaketa sakonak eragingo ditu, batez ere bi arlo hauetan: garapen profesionalean (zer lan mota egongo diren) eta hezkuntzan (zer ikastea merezi izango duen).

Eztabaida-ildo «etiko» bat sortu da pertsonak baino adimentsuagoak diren makinak sortzearen arriskuei buruz. Gizartearen kontrola har dezaketela diote, gure aurka egin eta gu mendera gaitzaketelakoan, makinak kontrolatzeko modua galtzen badugu. Argudio horiek goi-mailako zenbait adituk defendatu dituzte, hala nola Stephen Hawking-ek eta Elon Musk-ek. AAK urteak daramatza erabaki hobeak hartzen laguntzen, baina gakoa da «nork erabakitzen duen erabakitzea». Argi dago erantzukizun hori makinei pasa diezaiekgula, gure etorkizuna ero baten edo haur baten eskuetan utz dezakegun bezala. Guk erabaki behar dugu gure adimena gorde nahi ote dugun benetan baliotsuak diren gauzetarako, egin nahi ez dugun lan zikin edo aspergarria makinentzat utzita. Adostu behar dugu zer erabakik eskatzen duten kontzientzia eta zer erabaki dagokigun pertsonoi, eta ziurtatu behar dugu erabaki horiek behar ez dituzten zereginak makinentzat erreserbatutako eremu izaten jarraituko dutela, mende batzuetatik hona gertatzen ari den bezala.

Halaber, eztabaida interesgarria piztu da biztanleria-tarte handiak lanik gabe eta, beraz, diru-sarrerarik gabe geratzeak **gizartearen eta ekonomian izango lukeen eraginari buruz**. Hipotesi horren aurrean, zenbaitek diote estatuak bere gain hartu beharko lukeela balizko arazo hori, eta soldata soziala aurreikusi beharko litzatekeela edo robotei zergak ordainarazi. Lanaldiak murriztea ere planteatu da, jende guztiak lan egin dezan. Eta, aldi berean, eliteak sortzeko arriskua ikusten da. Elite horiek, jakintzaren eta aberastunaren pilaketaz baliatuta, ekonomia eta gizartea monopolizatzeke joera izanongo lukete, beren onerako. ■

Bilatzaileak, hamaika zerbitzu eskainiz

GORKA JAKOBE PALAZIO

EHUko KATEDRADUNA IKUS-ENTZUNEZKO TEKNOLOGIAN

Garai batean, Interneteko bilatzaileak, eskuarki, informazioa aurkitzeko erabiltzen ziren, hitz edo termino soilen kontsulten bidez. Eta 2012an bilaketa semantikoen aroa hasi zen, zeren eta Google bi gauzez konturatu baitzen: bilaketan %20 termino berriak ziren zeharo, eta termino bat baino gehiago erabiltzen ziren bilaketa guztien %70ean. Horrela, Googlek erabaki zuen bilatzaileak lagundu behar ziela erabiltzaileei arazoak konpontzen eta galderei erantzuten. Horregatik, gaur egun bilatzaile handiek, bilaketa hutsetik haratago, edo zer bilatzeko balio du, eta iradokizunak ere eskaintzen ditu; horrela, bilatzaile pertsonalizatuaren garaira eraman gaituzte. Horretan, Google aitzindaria izan da eta beste batzuk ere antzerako zerbitzuak eskaintzen hasi dira. Hortaz, Baidu bilatzailea txinatarrak eta Yandex errusiarrak irudiak, bideoak, mapak, itzulpenak eta abar eskaintzen dituzte erabiltzaileen beharrik asetzeko.

Azken urteotan, bilaketetan emaitza onenak eskaintzeko asmotan ibili dira etengabe Googleko adituak. Aldaketak egin dituzte algoritmoek ahalik eta ondoen lan egin dezaten. Gaur egun bilaketak egiten direnean, Youtubek hiru elementu hartzen ditu aintzakotzat: errebantzia edo adierazgarritasuna, atxikimendua eta kualitatea.

Handiez gain, badira Google edo Bing enpresen teknologian oinarritzen diren beste hainbat bilatzaile: Ask, Excite, HotBot, Yahoo... Dena den, Googlek, %80 inguruko erabilera tasarekin, aise

menperatzen du bilatzaileen merkatua; Baidu txinatarra, %12arekin, bigarrena da erabilerari dagokionez 2019ko amaieran. Zerrendan behe-rango, erabilera tasa txikiagoekin, Bing, Yahoo, Yandex, Ask eta DuckDuckGo.

Googlen bilaketa aurreratuak egin nahi izanez gero, Advanced Search¹ deritzon atalean sartu behar dugu. Bertan, bilaketa findu dezakegu emaitza hobeak lortzeko: adibidez, hizkuntzaren edo lurraldeen arabera mugatu, nahi ez ditugun hitzak... Hala ere, komeni da Googlen eraginkorrak izateko², zenbait trikimailu jakitea. Hona hemen erabilienak:

1. Komatxoak erabil daitezke bilaketak fintzeko. Esaterako: «kotxeen alokairua Gasteizen».
2. *Site* hitza erabiltzen da webgune zehatz batean bilatzeko. Esaterako, *site:ehu.eus* hauta probak.
3. OR edo | zeinua erabil daitezke bata edo bestea bilatzeko. Esaterako: *PC Lenovo | HP*.

Bilatzaile berritzaileen artean, Swisscows³ aipatu behar dugu. Bilatzaile semantiko suitzar honek gaien arabera eskaintzen ditu emaitzak, eta filtroez baliatzea ahalbidetzen du. Esaterako, «Nafarroa» hitza bilatuz gero, testuinguru edo arloka findu ahalko dugu emaitza, eta *gubernua*, *erakundeak*, *alderdi politikoak* eta horrelako esparruetan arakatu.

¹ https://www.google.com/advanced_search

² <https://www.ciudadano2cero.com/como-buscar-en-google-bien>

³ <https://swisscows.com>

BILATZAILE BEREZITUAK ETA FITXATEGI LIBREKOAK

Hezkuntzaren arloan eta, halaber, kazetarien artean, maiz bilatzen dira eduki libreak artikulua, liburu eta gainerako argitalpenetan. Horrelakoetan, CC Search⁴ izan daiteke bilatzaile eraginkorrena egile eskubideekin talkarik ez egiteko.

Boardreader⁵ bilatzaileak aukera ematen digu foro eta buletinetan nahi dugun terminoa topatzeko. Batzuetan, horrelakoetan bakarrik egin nahi ditugu bilaketak, eta Google erabiltzean kosta egiten zaigu mota horretako datuak aurkitzea. Bestalde, Pdf Search Engine⁶ bezalako guneak erabiltzen dira PDF, TXT eta bestelako formatuetan dauden emaitzak bilatzeko. Azken horren oinarrian, Google bilatzailearen fitxategiko operatzaileak daude.


Herritarrok ditugun galderak eta gaiak argitzeko ere, sarritan kontsultatzen dira bilatzaileak: galderak eta erantzunak eskaintzen dizkigute; horretarako erabilienak Quora, Yahoo Answers edo Stack Exchange dira.

Bestalde, magnet teknologian oinarritutako Torrentz 2 sarearen sorrerarekin, filmak bilatzea eta deskargatzea ekintza azkarra bihurtu da; esaterako, Torrentz2eu bilatzailearekin filmak bilatzen dituztenentzat. Twitter ere, mikrobloga izateaz gain, AZKEN uneko notiziak eta iritziak aurkitzeko ezinbesteko bilatzailea da. Bilatzaile berezituaren arloan, daukaten fitxategi kopurua kontutan hartuta,


⁴ <https://search.creativecommons.org>

⁵ <http://boardreader.com>


⁶ <http://pdfsearchengine.net>




Yandex nabigatzaileak, Googlek bezalatsu, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu



Swisscows bilatzaile semantikoaren aukerak



Bilaketa bat CC Searchen



Shodan bilatzailea

Archive, Flickr, Pixabay, Youtube, Google Scholar eta beste zerbitzu batzuk ere egokiak dira nahi dugun fitxategi librea edo doanekoa aurkitu ahal izateko. Dela irudia, dela bideoa, dela soinuren bat, jendeak biltegi edo webgune handietan bilatu ohi du aurkitu nahi duena.

Atal hau ezin dugu amaitu erabat berri-tzailea den bilatzailea aipatu gabe: Shodan⁷. John Marthely segurtasun arloko adituak sortutakoa da, eta Web Sakona arakatzear gain, Gauzen Interneteko tresnak bilatzeko ere erabil daiteke. Horrexegatik omen da hacker eta crackerren bilatzaile gogokoena. Webkamerak, semaforoak, hozkailuak... gero eta gauza gehiagok du IP helbidea, eta horiek guztiak topatzeko Shodan da aukerarik onena. Gero eta ikertzaile, polizia eta segurtasun aditu gehiagok darabilte bilatzaile bitxi hori. Pluginak egon badaude Shodan bilatzailea Chrome, Brave edo Firefox nabigatzaileetan txertatzeko. Beraz, espiatzeko bilatzaile bilakatu da Shodan⁸, erabat legezkoa dena eta edonoren esku dagoena.

⁷ <https://www.shodan.io>

⁸ <https://computerhoy.com/noticias/tecnologia/shodan-funciona-google-te-permite-espiar-millones-dispositivos-378513>

BILATZAILE SEGURUAK

Seguru aski DuckDuckGo eta StartPage dira bilatzaile hedatuena Interneteko bilaketetan pribatutasuna gorde nahi duten pertsonen artean. Bi nabigatzaile horiek ez dute erabiltzailearen daturik gordetzen eta ez diote publizitateari erabiltzailearen nabigazio usadiorik eskaintzen. Baina badira zerbitzu gehiago eskaintzen dituzten antzerako beste batzuk ere; adibidez, Qwant.

Qwant bilatzailea Frantzia sortutakoa da eta, aurrekoak bezainbeste hedaturik ez badago ere, pribatutasuna zaintzeaz gain, aukera politik eskaintzen ditu bilaketa bereziak zuzenean egiteko & zeinuaren bidez. Horrela, Wikipedian, Amazon edo Aliexpress guneetan zuzenean bila daiteke Qwantetik irten gabe. Nahikoa da adibide hauetan bezala egitea:

- Aliexpress-en gunean Huawei markako aparaturen bat bilatzeko: **&Aliexpress.es Huawei**
- Wikipedian «Nafarroa» sarrera zuzenean bilatzeko: **&w Nafarroa**
- Qwant Music atalean Benito Lertxundiren musika bilatzeko: **&qm Lertxundi**
- Twitterren «Nafarroa» bilatzeko: **&tw Nafarroa**

BLOCKCHAINEN BILATZAILEAK

Nahiz eta Blockchain teknologiak 10 urte izan, orain hasi dira zabaltzen lehenbiziko zerbitzuak Interneten. Eta bilatzaileak ere badaude dagoeneko, gero eta jende gehiagok bilatzen dituelako egunero egiten diren hamaika transakzioen artean. Agian, onenen arteko bat aukeratzekotan, Blockchain⁹ aipatu behar dugu, zeren eta 16 blockchain desberdinetan arakatzeko aukera ematen baitu. Hala ere, Bitcoin Core, Ethereum eta Bitcoin Cash-en blockchainetan baino ez badugu bilatu nahi, Bitcoin Explorer¹⁰ da usu erabiltzen den bilatzailea. Bestalde, edukietan bilatu nahi badugu, zerbitzu desberdinetara jo beharko dugu, aplikazioek beraiek baitute beren bilatzailea Yours, Slog, Fivebucks eta horrelako guneetan. Blockchaineko munduko lehen argitalpena izan den Slog.media gunean, esaterako, bilaketak Ajax teknologiaren bidez egiten dira webgunean bertan, non emaitzak bilatzen ari garena idatzi ahala agertzen baitira, berehala. ■

⁹ <http://blockchain.com>

¹⁰ <https://www.blockchain.com/explorer>

Familia homoparentalen trataera ikastetxeetan

AMAIA OLABARRIETA

LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

JOANA JAUREGUIZAR

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEKO IRAKASLEA (UPV/EHU)

«Ez nekien zer ari zen gertatzen, ez nekien zergatik ari ziren barre egiten, ez nuen ezer ulertzen, baina oso gaizki sentitzen nintzen. Nire ikaskideei bi ama nituela bakarrik esan nien».

Gaur egun, eskola inklusiboari buruz hitz egiten dugu ikasleen aniztasunak ekar ditzakeen arazoei aurre egiteko baliabide gisa, betiere ikasleen arteko ezberdintasunak errespetatu eta onartu beharraren printzipiotik abiatuta. Hezkuntzan eskola inklusiboak lortu nahi dira, eta, horretarako, ezinbestekoa da kulturartekotasuna, aniztasun fisikoa eta intelektuala oinarritzat hartzea ikas-kuntzarako eta bizikidetzarako. Hala ere, gutxi dira familia aniztasunari arreta ematen dioten eskolak.

Ezohiko familia ereduak aspaldi integratu ziren gizartean zein hezkuntzan; eta gai horren aurrean gizabanakoak jarrera hobea izan arren, oraindik ez da normalizatu. Askotan, egoera baztertzailerak gertatu dira, eta inork ez du horren aurrean ezer egin. Halakoetan, hezkuntza sistemak aldaketarako eragile aktiboa izan beharko luke. Lehenik eta behin, ikastetxeen giroa zaindu beharko luke; izan ere, ezin dugu ahaztu inguru horretan mugitzen direla familia eredu desberdinetan bizi diren haur eta gazteak, haien

identitatea garatzen ari direnak; eta, horiek bazterturik senti ez daitezen ingurua sortu beharko genuke. Gaiari bere osotasunean heldu behar zaio: familia aniztasunaren era askotako ezaugarriak agertu eta landu behar ditugu, eta aniztasunak aberasten gaituen pentsamoldetik ekin-tzetara pasatu.

FAMILIA EREDU BERRIAK

Gure gizarteko familiek dituzten egitura desberdinak aztertzen baditugu, aldaketa sakonak egon dira 70eko hamarkadatik orain arte, eta jakin badakigu gaur egun familiak eratzeko hamaikatxo modu daudela. Baina zeri egiten dio erreferentzia «familia eredu berria» kontzeptuak? Golombok-ek¹ esan zuenez, familia berria kontzeptuak erreferentzia egiten die XX. mendera arte existitzen ez ziren edo gizartean ezkutatzen ziren familia motei. Halaber, familia berriak dira familia tradizioaletik (aita, ama eta ondorengoz osatutakoa) urruntzen direnak, eta horietako batzuk familia homoparentalak dira, guraso gay eta lesbianeaz osatutakoak.

FAMILIA HOMOPARENTALA IZATEAK ZER NOLAKO ERAGINA DU HAURRAREN GARAPENEAN?

Haurraren ongizatea da garapen psikologikoaren funtsezko helburua, eta familien zein hezitzaileen zeregin eta ardura nagusia. Baina, zer da ongizate

psikologikoa? Carol Ryff² psikologoaren iritziz, ongizate psikologikoa norberak duen potentzialaren garapenaren arabera da; hau da, poztasuna edo ongizate psikologikoa ez dira berez pertsonen helburu nagusiak, baizik eta ondo bizi izateak berekin dakarren emaitza. Bestalde, Palacios, Marchesi eta Coll psikologoek³ arabera, haurraren garapen psikologikoa hitz egiteko, pertsonen garapenean izandako aldaketa guztiak aztertu behar dira, hazkuntza-prozesukoak eta norbanakoaren esperientziakoak. Alegia, ezinbestekoa da haurrari buruzko bi hauek jakitea: a) bizitzako zein fasetan eta zein egoera kultural, historiko eta sozialetan dagoen, eta b) bizitzan zein esperientzia izan dituen.

Nahiz eta asko ikertu den gaur egungo familia homoparentaletako haurren ongizate psikologikoa, oraindik erantzunak falta dira. Ildo horretatik, estatuko ikerketek ondorioztatu dute antzerako ongizate psikologikoa dutela lesbianen familietan jaiotzetik hezitako haurrek eta familia heterosexualetan hezitakoek (Thomeer, Paine eta Bryant⁴). Halaber, Osasunari Buruzko Inkesta Nazionalan adierazi da antzerako ongizate psikologikoa dutela ezkondata dauden familia homosexualen haurrek eta familia heterosexualetan hezitako haurrek (Reczek, Spiker, Liu eta Crosnoe⁵). Azkenik, gizarte egituren aldaketak kontuan izanik, ikerketa horien emaitzekin argi geratu da honako ondorio

orokor hau: ikerlanetan sexu bera eta sexu desberdina duten familien artean aurkitu diren aldeak erlazioa du familia egitura bakoitzak barne interakzioan duen kalitatearekin (Golombok¹).

Oreka psikologikoari dagokionez, familia eredu desberdinekin egindako ikerketa batek ere ezin izan du ondorioztatu ama lesbianekin hezitako haurrek arazo emozionalak edota jarrera-arazoak sufritzeko arrisku gehiago izan dezaketetik, familia heterosexualetako haurrekin alderatuz gero. Beraz, oreka psikologikoa ez dago familia eredu desberdina izatearen menpe (Chan, Raboy eta Patterson⁶; Golombok¹). Are gehiago, ikerketek erakutsi dute ama lesbianekin hezitako haurrak ingurura ondo egokitzen direla; alegia, ez daukatela gainontzeko biztanleek baino aukera gehiago nahaste psikologikoak izateko (Golombok¹). Gainera, familia eredu inguruan hitz egin denean, familia homoparentalak sortzearen arrazoiak eta moduak ugariak izan direla baieztatu da. Horregatik, aipatzekoa da Arranz eta Olivak⁷ esaten dutena familia eredu hauen inguruan, hots, familia homoparentalak sortzeko arrazoiak ondo hausnartutako erabakietatik datozela, eta erabaki horien atzean ahalegina eta konpromisoa dagoela.

Familia egiturak ba al du eraginik elkarrekin kalitatean eta haurren egokitzapenean? Familiaren testuinguruaren kalitateari dagokionez, familia eredu bakoitzerako aztertutako adierazle guztiak normaltasunaren-tartean kokatu izan dira, haurren ongizate psikologikoan kalterik sortu gabe (Arranz eta Olivak⁸; González, Morcillo, Sánchez, Chacón eta Gómez⁹). Halaber, gurasoen orientazio sexuala ez da aldagai erabakigarria seme-alaben ongizate psikologikoan, eta aiten edo amen homosexualitateak ez du haurren garapena arriskuan jartzen (González et al.⁹).

IKASTETXEETAKO ZALANTZAK ERANTZUTEN

Argi dago familia eta eskola balio pedagogiko altuko testuinguruak direla (Ceballos¹⁰), horien helburu nagusia

mutilen eta nesken garapen pertsonalaren heziketa eta sustapena baita. Nahiz eta familia gaia ezaguna den eta aldaketa soziokulturalak egunero aztertzen diren, erakunde askok –kasu honetan eskolak– zailtasunak ikusten dituzte familia eredu berriek dakartzaten erronkei aurre egiteko, gai korapilatsua eta era askotako ideologekin loturikoa baita. Hala ere, egungo familia eredu haurren egoera guztiei aurre egin ahal izateko, eta haurren garapen psikologikoaren ongizaterako, ezinbestekoa da eskolek egoera horiek normaltzat hartzea eta haietaz normaltasunez hitz egitea.

Gaur egun, haurrek hainbat uste sortzen dituzte familia kontzeptuaren inguruan, edo familia eredu desberdinetan bizi baitira, edo inguruan familia eredu desberdinak ikusten baitituzte. Familia kontzeptuaren esanahian sakontzen badugu, esan behar dugu beharrezkoa dela nork bere burua, taldea eta mundua konprenitzea, bizitzako ohiko egoeretan autonomiaz eta erantzukizunez jokatzeko, eta, horrela, gizarte gutziz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta plurala sortzeko. Hartara, eskolak eta familiak gai honen inguruko hausnarketa bateratua egin beharko lukete. Gainera, elkarlan horren ondorioz, eskolaren eta familiaren funtzio sozial eta hezitzailea modu paraleloan kokatuko litateke (Iribarren¹¹).

Lopezek¹² ikastetxearen izaeraren inguruko gogoeta egitera gonbidatzen gaitu: eskolak babestu beharko lituzke guraso homosexualak eta haien seme-alabak zein haur homosexualak. Horrela, honako hauek lortu ahal izango dira: mota guztietako familiak modu esplizituan onartzea, sexu heziketaren edukietan homosexualitatea integratzea, dibertsitatearen tolerantzia bultzatzea, desiraren orientazioan aniztasuna onartuz homosexualitatea gaitzesteko jarrera eta jokaerak prebenitzea eta homofobiaren adierazpenei kontra egitea. ■

ERREFERENTZIAK

¹ Golombok, S. (2016). *Familias modernas: Padres e hijos en las nuevas formas de familia*.

² Ryff, C.D. (1989). *Happiness is everything, or is it? Explorations on the meaning of psychological well-being*.

³ Palacios, J., Marchesi, A. eta Coll, C. (1999). *Garapen psikologikoa eta hezkuntza-I. Psikologia ebolutiboa*.

⁴ Thomeer, M. B., Paine, E. A., eta Bryant, C. (2018). *Lesbian, gay, bisexual, and transgender families and health*.

⁵ Reczek, C., Spiker, R., Liu, H., eta Crosnoe, R. (2016). *Family structure and child health: Does the sex composition of parents matter?*

⁶ Chan, R. W., Raboy, B., eta Patterson, C. J. (1998). *Psychosocial adjustment among children conceived via donor insemination by lesbian and heterosexual mothers*.

⁷ Arranz, E. eta Oliva, A. (Koord.) (2010). *Desarrollo psicológico en las nuevas estructuras familiares*.


⁸ Arranz, E. eta Oliva, A. (Koord.) (2011). *Nuevas familias y bienestar infantil*.

⁹ González, M. M., Morcillo, E., Sánchez, M. Á., Chacón, F., eta Gómez, A. (2004). *Ajuste psicológico e integración social en hijos e hijas de familias homoparentales*.

¹⁰ Ceballos Fernández, M. (2009). *La educación formal de los hijos e hijas de familias homoparentales: familia y escuela a contracorriente*.

¹¹ Iribarren, L. A. (2010). *Familia ereduak gaurko eskolan*.


¹² López, F. (2006). *Homosexualidad y familia: Lo que los padres, madres, homosexuales y profesionales deben saber y hacer*.



Itzultzaile neuronal juridiko administratiboa

Euskalsarean sartuta dauden EAEko
administrazio publikoentzat
eskuragarri

BERRIA



<https://www.ivap.euskadi.eus/itzultzaile-automatiko-neuronala/z16-a2izo/eu//>

Bisita ezazu gure bloga

< IVAP

Administrazio hizkera argia



Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Zeren bila zabilta?

Bilatu blogoan

Atalak

Nor gara

Blog honi buruz

Kontaktua

Kategoriak

Gramatika-zalantzak

Argi idazteko aholkuak

Komunikazio elektronikoa

Ikastaro eta deialdiak

Argitalpenak

Hemeroteka

2019

2018

2017

2016

Gizarte-sareak

Tweets by @IVAP_eus



IVAP_eus @IVAP_eus

[PUBLICACIÓN] El #IVAP ha publicado



Uztailean, Administrazioa Euskaraz aldizkariaren 109. zenbakian...

Gurean ibilbide laburra du etxebizitza kolaboratibo edo cohousing delakoak, eta oraindik ez da gauzatu Euskal Herrian dauden mota horretako proiektuetatik bat ere. Edonola ere, azken bizpahiru urteetan nabarmen ugartu dira etxebizitza kolaboratiboko egitasmoak.

Ekaina 30, 2020 | Administrazio Hizkera Atala | [Iruzkirik ez](#)

Gramatika-zalantzak



DUDANET: Epealdi bat adierazteko moduak

Epealdi bat adierazi nahi dugunean, nola deklinatu behar ditugu *aste*, *egun*, *ordu* edo antzeko denbora-unitateak?

Ekaina 12, 2019 | Urtzi Barrenetxea Iparragirre | [Iruzkirik ez](#)

Argi idazteko aholkuak



Kontuz egitura anbiguoekin

Zenbait egitura gramatikalek irakurtzeko zailtasunak eragin ditzakete, itxuraz, simpleak izan arren.

Ekaina 16, 2020 | Urtzi Barrenetxea Iparragirre | [Iruzkirik ez](#)

Komunikazio elektronikoa



Erabili agintera argibideetarako

Post honetan, argibideak adierazteko agintera erabiltzearen onuraz jardungo dugu.

Uztaila 17, 2018 | Urtzi Barrenetxea Iparragirre | [Iruzkirik ez](#)

Ikastaro eta deialdiak



Berriazko hizkuntza prestakuntza

IVAPEko hizkuntza prestakuntza

Argitalpenak



Uztailean, Administrazioa Euskaraz aldizkariaren 109. zenbakian...

Bertan aurkituko dituzu testu ulergarri eta kalitatezkoak idazteko hainbat aholku.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu, idatzi helbide honetara:



Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz

administrazioeuskaraz@ivap.eus

Abizenak

Izena

NAN/IFZ/ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta

Europar Batasuneko Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten dugu datu pertsonalak **tratamendu-jarduera** honen barruan sartuko direla: "HAEeko argitalpenak". **Tratamenduaren arduraduna:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza. **Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:** Argitalpena kudeatzea eta interesdunei postaz bidaltzea. **Legitimizazioa:** Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko. **Informazioaren hartzaileak:** Ez da aurreikusten datuak jakinaraztea, lege-betebeharrik izan ezean. **Eskubideak:** Datuetarako irispidea, datuok zuzentzea eta ezabatzea, eta beste eskubide batzuk informazio gehigarrian azaltzen dira. Informazio gehigarria: Hemen kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/webo1-aprat/es/es/contenidos/informacion/rat/es_def/adjuntos/0220_es.html